



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

# **LAN-POLTSA: "KUDEAKETA-TEKNIKARIAK – EKONOMIA- ETA ENPRESA- ZIENTZIETAN LIZENTZIATUAK"**

## **LEHEN ZATIA**

Bilboko Ingeniaritza  
Goi Eskola Teknikoa

2010eko martxoaren 12a

**1.- ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN 1. ARTIKULUAK DIO ORDENAMENDU JURIDIKOAREN GOI-BALIOAK DIRELA:**

- 1a) Legalitatea, justizia eta publizitatea.
- 1b) Askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa.
- 1c) Askatasuna, justizia, berdintasuna eta legalitatea.
- 1d) Legalitatea, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa.

**2.- EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA-ESTATUTUAK DIOENAREN ARABERA, EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN ESKUMEN ESKLUSIBO DIRA:**

- 2a) Jabego intelektual eta industrialak.
- 2b) Euskal Herriko jardun ekonomikoaren sustapena, garapen ekonomikoa eta planifikazioa, ekonomiaren ordenantza orokorrekiko bat.
- 2c) Kredituaren, bankaren eta aseguruaren antolamendua.
- 2d) Euskal Herriko arrantza-sektorearen antolamendua.

**3.- ADIERAZ EZAZU 1992KO AZAROAREN 26KO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ETA PROZEDURA ADMINISTRATIBO KOMUNEN ERREGIMEN JURIDIKOARI BURUZKO 30/1992 LEGEAREN ARABERA HAUETAKO ZEIN ESALDI DEN FALTSUA**

- 3a) Administrazio publikoetako organoek esleituak dituzten eskumenak eskuordetu ahal izango dizkiete Administrazio bereko beste organo batzuei, hierarkikoki mendekoak ez badira ere, edo Administrazio publikoen mendeko zein haiei lotutako zuzenbide publikoko erakundeei.
- 3b) Ekintza administratiboak errekurritzen direnean, inola ere ezin izango da eskuordetu errekurtsioa ebazteko eskumena errekurritutako ekintza egin duen administrazio-organon.
- 3c) Inola ere ezingo dira eskuordetu Estatuko Burutzarekiko, Nazioko Gobernuaren Presidentziarekiko, Gorte orokorrekiko, Autonomia Erkidegoetako Gobernu Kontseiluekiko eta Autonomia Erkidegoetako Legebiltzarrekiko harremanei buruzko gaiekin lotutako eskumenak.
- 3d) Eskuordetu ahal izango dira xedapen orokorrak ezartzei buruzko eskumenak.

**4.- ADIERAZ EZAZU 1989KO UZTAILAREN 6KO EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN 6/1989 LEGEAREN ARABERA HAUETAKO ZEIN ESALDI DEN FALTSUA:**

- 4a) Egitekoak betetzeko inpartzialtasun- eta profesionaltasun- eta, interes orokorra kudeatzeko, eragingarritasun- eta objektibotasun-irizpideen arabera eratzen da Euskal Funtzio Publikoa.
- 4b) Lege horren aplikazio-eremupeko Euskal Administrazio Publikoetan, langileak karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak edota aldi baterako langileak izango dira, eta ez beste.
- 4c) Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 legea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren Erakunde Autonomoen langileei aplikatzen zaie.
- 4d) Funtzio Publikoaren arloko goi-organok hauek dira: Eusko Jaurjaritza, Lehendakaritza, Justizia eta Garapen Autonomikoko Saila eta Funtzio Publikoaren Euskal Kontseilua.

**5.- EKINTZA ADMINISTRATIBOEN DEUSEZTASUNA ETA DEUSEZTAGARRITASUNA DIRELA ETA, ADIERAZI ZEIN DEN ESALDI ZUZENA:**

- 5a) Deuseztagarriak dira arau-hauste penal diren nahiz halako baten ondorioz egiten diren ekintzak.
- 5b) Erabat deusezak dira ordenamendu juridikoaren aurkako berariazko nahiz ustezko ekintzak, baldin eta haien bitartez bete beharreko baldintzak bete gabe eskubide nahiz ahalmenak bereganatzen badira.
- 5c) Erabat deusezak dira ordenamendu juridikoaren edozein arau-hauste diren ekintzak, botere-desbiderapena barne.
- 5d) Deuseztagarriak dira lege ezarritako prozedura nahiz kide anitzeko organoen borondatea eratzeko funtsezko arauak biltzen dituztenak zeharo arbuia egiten diren ekintzak.

**6.- 1992KO AZAROAREN 26KO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ETA PROZEDURA ADMINISTRATIBO KOMUNEN ERREGIMEN JURIDIKOARI BURUZKO 30/1992 LEGEAREN 63. ARTIKULUAREN ARABERA, PROZEDURA ADMINISTRATIBOAN INTERESDUNTZAT JOTZEN DIRA:**

- 6a) Erabakiak beren interes legitimoei, dela indibidualei dela kolektiboari, eragin diezaikekeen pertsonak, baldin eta ebazpen definitiboa eman aurretik agertzen badira prozeduran.
- 6b) Prozedurari hasiera eman gabek ere, bertan hartzen den erabakiaren ondorioz kaltetuak gerta litezkeen eskubideen titular direnak.
- 6c) Prozedura interes legitimo indibidual nahiz kolektiboaren titular moduan sustatzen dutenak.
- 6d) Aurreko guztiak jotzen dira interesduntzat.

**7.- ADIERAZ EZAZU EHU-KO ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO PERTSONALA DELA ETA, EHU-REN ESTATUTUEN ARABERA HAUETAKO ZEIN ESALDI DEN ZUZENA:**

- 7b) Errektoreak, administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren ordezkari-organoekin indarrean dauden legeetan xedatutako moduan negoziatu ondoren, administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren ordain-erregimena ezarriko du indarrean dauden legeen esparruan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekiko homologazioan.
- 7c) Unibertsitateko Klaustrak, administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren ordezkari-organoekin indarrean dauden legeetan xedatutako moduan negoziatu ondoren, administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren ordain-erregimena ezarriko du indarrean dauden legeen esparruan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekiko homologazioan.
- 7d) Gobernu Kontseiluak, administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren ordezkari-organoekin indarrean dauden legeetan xedatutako moduan negoziatu ondoren, administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren ordain-erregimena ezarriko du indarrean dauden legeen esparruan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekiko homologazioan.

**8.- ADIERAZ EZAZU, IRAKASLEEI DAGOKIENEZ, EHU-REN ESTATUTUEN ARABERA HAUETAKO ZEIN ESALDI DEN FALTSUA:**

- 8a) Kontratupeko irakasle eta ikertzaile doktoreak eta lankide iraunkorrak unibertsitateko irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioak dira.
- 8b) Kontratupeko irakasle eta ikertzaile doktoreak eta lankide iraunkorrak lan-itunpeko langile kontratatuak dira.
- 8c) Unibertsitateko eta Unibertsitate Eskoletako irakasle titularrak unibertsitateko irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioak dira.
- 8d) EHuko irakaskuntza- eta ikerkuntza-langileria unibertsitateko irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioek eta langile kontratatuek osatzen dute.

**9.- ADIERAZ EZAZU, EUSKAL UNIBERTSITATE-SISTEMARI BURUZKO 3/2004 LEGEAREN ARABERA, EUSKAL UNIBERTSITATE-SISTEMAREN ERREGIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOARI DAGOKIONEZ, HAUETAKO ZEIN ESALDI DEN FALTSUA:**

- 9a) Unibertsitatea autonomoa da bere kudeaketa egiteko, eta eragimen, eraginkortasun eta kalitatea hobetzearen printzipioen pean jarduten da.
- 9b) Unibertsitateen gaineko eskumena duen sailak ezarriko ditu unibertsitate-irakaskuntzen prezioak, bai Euskal Autonomia Erkidegoak onartutako titulu edo diplomen kasuan, bai espezializazio-ikastaroen eta unibertsitateak emandako bestelako prestakuntza-jardueren kasuan.
- 9c) Unibertsitateko aurrekontuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren kontura egindako horniduraz gain, ordenamendu juridikoan aurreikusitako Zuzenbide publiko edo pribatuko beste diru-sarrera batzuekin ere osatuko dira.
- 9d) Prezio publikoen gaineko indarreko araudiak arautuko ditu irakaskuntza-zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak eta legez ezarritako gainerako ordainkizunak, eta unibertsitateen gaitetan eskumenak dituen sailburuak onartu beharko ditu.

**10.- HONELA DIOTE EHU-REN ESTATUTUEK:**

- 10a) Errektorearen eskumena da ekonomia eta finantza-baliabideak kudeatzea.
- 10b) Idazkaritza Orokorraren eskumena da ondarea eta ekonomia- eta finantza-baliabideak kudeatzea, estatutu hauetan administrazio-organoetarako ezarrita dagoena eragotzi barik.
- 10c) Gerentearen eskumena da ondarea eta ekonomia- eta finantza-baliabideak kudeatzea, estatutu hauetan administrazio-organoetarako ezarrita dagoena eragotzi barik.
- 10d) Errektorearen eskumena da ondarea eta ekonomia- eta finantza-baliabideak kudeatzea, estatutu hauetan administrazio-organoetarako ezarrita dagoena eragotzi barik.

**11.- ADIERAZ EZAZU HAUETAKO ZEIN ESALDI DEN ZUZENA:**

- 11a) Kanpo-auditoriak ez dauka fede publikoa emateko ahalmenik, funtzio hori barne-auditoriari dagokio.
- 11b) Kanpo-auditoriak jaulkiko ditu hirugarrenentzako txostenak, eta barne-auditoriak erakundearentzat berarentzat.
- 11c) Barne-auditoria gaitasun profesional aitortuko enpresa independente batek egin behar du.
- 11d) Barne-auditoria profesional independenteek egina da, kanpo-auditoria ez bezala, non lan-itun bat baitago auditorearen eta enpresaren artean.

**12.- AUDITORIA BATEAN, LAN-PAPERAK...**

- 12a) Behin auditoria amaituta enpresarenak dira.
- 12b) Ez dira halakoak ez elkartearen estatutuak ez izaera juridikoko beste dokumentuak ere.
- 12c) Ez dira deuseztatu behar legeak eskatutako epea iraungi baino lehen.
- 12d) Haien helburu bakarra da auditoreari lanerako lagungarri izatea.

**13.- HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIARI, FUNTSEAN, FUNTZIO HAU DAGOKIO:**

- 13a) Legegintza.
- 13b) Aholku-ematea.
- 13c) Kontu-hartzea.
- 13d) Fiskalizatzea.

**14.- HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN URTEKO TXOSTENARI DAGOKIONEZ, HAUETAKO ZEIN ESALDI DA ZUZENA?**

- 14a) Epaitegiak ekitaldian zehar eginiko jarduera batzuen laburpena ekarriko du.
- 14b) Haren fiskalizatze-funtzioaren ondorioa izango da txostena.
- 14c) Eusko Legebiltzarrari proposatutako neurriak besterik ez da agertuko txostenean.
- 14d) Aparteko izaera izango du txostenak.

**15.- ERAKUNDEAREN BARNE-KONTROLAK ABIAN DIRELA ETA DISEINATU BEZALA DABILTZALAKO ARRAZOIZKO SEGURTASUNA LORTZEKO, HONELA EGINGO DITU AUDITOREAK BERE EGIAZTAPENAK:**

- 15a) Esklusibotasun-proben bidez.
- 15b) Betetze-proben bidez.
- 15c) Objektibotasun-proben bidez.
- 15d) Inoiz ez da horrelako analisirik egiten.

**16.- ERAKUNDEAREN OSAGAI EK HAIENTZAT DISEINATUTAKO BETETZEKO NEURRIEN ARABERA ETA BEHAR BEZALA DIHARDUTELA BERMATZEA DIOGUNEAN, ZERI BURUZ ARI GARA?**

- 16a) Barne-kontrolari buruz.
- 16b) Auditoria bereziari buruz.
- 16c) Kontrol ekonomikoari buruz.
- 16d) Erantzukizun administratiboari buruz.

**17.- AUDITATUTAKO FINANTZA-EGOERETAKO SALDOEN OSOTASUN, ZEHAZTASUN ETA BALIOARI BURUZKO AUDITORIA-EBIDENTZIA LORTZEKO, HAU ERABILTZEN DA:**

- 17a) Dokumentazio idatzia.
- 17b) Proba substantiboak.
- 17c) Markak egiaztatzea.
- 17d) Planifikazio egokia.

**18.- ZERK ADIERAZTEN DU ZER ALDE DAGOEN EKITALDIAN AITORTUTAKO ESKUBIDEEN ETA AITORTUTAKO OBLIGAZIOEN ARTEAN?**

- 18a) Ekitaldiko Altxortegiko Geldikinak.
- 18b) Ekitaldiko Aurrekontu-emaitzak.
- 18c) Ekitaldiko finantzaketa atxikiaren desbideratzeak.
- 18d) Ekitaldiko geldikin generikoak.

**19.- AURREKONTU BERRIA URTARRILAREN 1EAN INDARREAN SARTZEA EZINEZKOA DELA IKUSITA, ZER EGIN BEHAR DUGU?**

- 19a) Indarrean hasi arte itxaron gastua exekutatu ahal izateko.
- 19b) Aurreko ekitaldia automatikoki luzatu.
- 19c) Aurreko ekitaldiko kreditu guztiak aldatu eta urteko KPIaren arabera doitu.
- 19d) Agintariei lehenbailehen egin dezatela eskatu.

**20.- AITORTUTAKO OBLIGAZIOAK BETETZEARI ATXIKITA EZ DAUDEN BEHIN-BETIKO KREDITU-SALDOAK ZER DIRA?**

- 20a) Altxortegiko emaitzak.
- 20b) Kreditu-geldikinak.
- 20c) Saldo erabilgarriak.
- 20d) Aurrekontu-emaitzak.

**21.- KONTABILITATE PUBLIKOAN:**

- 21a) Ez da aurreikusi nahitaez bete beharreko kontabilitate-printzipiorik.
- 21b) Ez da aurreikusi zuhurtzia-printzipioa aplikatzerik.
- 21c) Kutxa-printzipioa aplikatzen da ekitaldiko emaitza ekonomikoa kalkulatzeko.
- 21d) Sortzapena nahitaez bete beharreko printzipiotzat jotzen da.

**22.- HAUETAKO ZEIN EZ DA KONTABILITATE PUBLIKOAREN HELBURU?**

- 22a) Erakundearen kudeaketaren barne-kontrolaren gabeziak agerian uztea.
- 22b) Ibilgetuaren inbentarioa eta kontrola ahalbidetzea.
- 22c) Aurrekontuaren exekuzioa erakustea, aurrekontu-emaitzak agerian utzita.
- 22d) Erabakiak hartzeko informazio ekonomiko eta finantzario erabilgarria eskaintzea.

**23.- 1994KO MAIATZAREN 6KO AGINDUAK ONETSITAKO KONTABILITATE PUBLIKOKO PLAN OROKORRA...**

- 23a) Ez zaie aplikatzen estatuaren azpisektoreko erakunde administratiboiei.
- 23b) 8. taldea aurreikusten du, zeinak aurrekontu-kontrolako kontuak biltzen baititu.
- 23c) Kontabilitate analitikoa garatzeko tresnak ditu.
- 23d) Bost ataletan antolatua da: Kontabilitate-printzipioak, Kontu-koadroa, Kontabilitateko definizio eta erlazioak, Urteko kontuak eta Balioztatzeko arauak

**24.- KONTABILITATE PUBLIKOKO IREKIERA-IDAHPENARI BURUZ:**

- 24a) Urtarrilaren 1eko data izango du, non eta ez den aurreko ekitaldikoa luzatu; kasu horretan, behin betiko onespeneren data izango du.
- 24b) Ez du itxitako ekitaldien multzokatzeari dagokion partidarik aurreikusiko.
- 24c) Ez dio eragingo Gastuen Aurrekontuko Kontzeptu Liburu Nagusiari.
- 24d) Kontabilitate-ekitaldiaren hasieran egiten da, beste edozein eragiketa idatzi baino lehenago.

**25.- AURREKONTU-ALDAKETAK: KREDITU-TRANSFERENTZIA...**

- 25a) Kreditu osoa aurrekontu-aplikazio batetik lotura juridikoko poltsa bereko beste aplikazio batera pasatzea dakar beti berekin.
- 25b) Hura onestea erakundearen presidenteari dagokio beti.
- 25c) Ez dakar berekin hasiera batean onetsitako aurrekontuan aldaketa kuantitatiborik.
- 25d) Inoiz ez du behar inongo gobernu-organoren aurretiko onespenerik.

**26.- KREDITU-HANDITZEAK:**

- 26a) Hasiera batean onetsitako aurrekontua murrizten duten aldaketak dira.
- 26b) Gastu-premia atzeraezinei erantzuteko balio dute.
- 26c) Berariaz atxikitako baliabideez finantzatzen dira.
- 26d) Gastu-premia atzeraezinei erantzuteko balio dute, baldin eta partida aurrekontuan aurreikusita badago.

**27.- EZIN IZANGO DA GASTU-BAIMENIK EMAN HAUEN KONTURA:**

- 27a) Kreditu atxikiak.
- 27b) Kreditu erabilgarriak.
- 27c) Kreditu ez erabilgarriak.
- 27d) Gastatzeko kreditu atxikiak.

**28.- ADO AGIRIA:**

- 28a) Baimente-, zehazte- eta obligazioen aitortze-faseen kontabilitate-euskarria da.
- 28b) Aurrekontu itxien exekutatzeko eragiketarako agiri mistoa da.
- 28c) Baimena, gastatzeko konpromisoa eta obligazioaren aitortzea bakarrez gauzatzen direnean jaulkiko da.
- 28d) Gastu-aurrekontua exekutatzean ez dago 'O' fasea aurrekoekin metatzerik.

**29.- ADIERAZ EZAZU HAUETAKO ZEIN ESALDI DEN FALTSUA:**

- 29a) Baimen-saldoa esaten zaio baimendutako kredituen eta konprometitutako kredituen arteko aldeari.
- 29b) Kreditu-saldoa esaten zaio aurrekontuko behin betiko kredituen eta ekitaldian baimendutako kredituen arteko aldeari.
- 29c) Erabilera-saldoa esaten zaio ekitaldian baimendutako kredituen eta ekitaldian ordaindutako obligazioen arteko aldeari.
- 29d) Ordaintzeke dauden aitortutako obligazioen saldoa esaten zaio aitortutako obligazioen zenbatekoaren eta ekitaldian egindako ordainketen zenbatekoaren arteko aldeari.

**30.- GASTU-AURREKONTUKO EXEKUZIO-FASE HAUEK ERAGINGO DIOTE EKITALDIAREN EMAITZA EKONOMIKOARI:**

- 30a) Baimenek eta gastatzeko konpromisoek.
- 30b) 6. kapituluko obligazioak aitortzeak.
- 30c) 1. kapituluko ordainketak agintzeak.
- 30d) 3. eta 4. kapituluetakoko obligazioak aitortzeak.

**31.- ITXITAKO AURREKONTUETAKO ORDAINKETEN ITZULPENAK...**

- 31a) Uneko ekitaldiko diru-sarreratzat hartzen dira.
- 31b) Gastu txikiagoa dakarte, kreditua berritzen baitute.
- 31c) Aurrekontutik kanpoko eragiketa dira.
- 31d) Kobrantza gauzatu aurretik kontabilizatzen dira.

**32.- ITXITAKO EKITALDIETAN AITORTUTAKO OBLIGAZIO BAT BALIOGABETZEA...**

- 32a) Ezohiko diru-sarrera ekonomikoa da.
- 32b) Obligazio hura sorrarazi zuen kontzeptuan gastu txikiagoa adierazten du.
- 32c) Aurrekontuko diru-sarrera da.
- 32d) Ordaindu beharko ez denez, aurrekontu-gastu handiagoa dakar berekin.

**33.- BESTEAK BESTE, DATU HAUEK BILDUKO DITU KONPROMISO-KREDITUEN EGOERAK:**

- 33a) Uneko zorpetzearen ondorioz izandako interes eta amortizazioak.
- 33b) Egiteko orduan kontratatuta zeuden langileen gastuak.
- 33c) Exekutatzeko aurreikusten diren ekitaldiak.
- 33d) Kredituen zenbatekoa, finantzaketa atxikia kenduta.

**34.- HAUETAKO ZEIN ESALDI DA FALTSUA?**

- 34a) Gordailuak egiteak aurrekontutik kanpoko zordun bat eragin lezake.
- 34b) Periodokatzeagatik doikuntzek ekitaldiko gastu ekonomikoa murrizten dute, baina ez aurrekontu-gastua.
- 34c) Kontabilitate-amortizazioak aurrekontutik kanpoko hartzekodun bat eragiten du.
- 34d) Altxortegiko barne-mugimenduak aurrekontutik kanpoko eragiketatzat jotzen dira.

**35.- EPE LABURRERAKO FINANTZAKETA-BEHAR IRAGANKORREI ERANTZUTEKO EGITEN DIREN ALTXORTEGIKO ERAGIKETAK...**

- 35a) Maileguaren tronkoagatik eta haren interesengatik egiten diren aurrekontu-eragiketak dira.
- 35b) Aurrekontutik kanpoko eragiketak dira tronkoari dagokionez; interesak, ordea, aurrekontu-gastuak dira.
- 35c) Baimendu gabeko eragiketak dira aurrekontua egitean ez badira aurreikusi, edota ez bada aurrekontua aldatzen haiek egin ahal izateko.
- 35d) Administrazio Publikoari ordaintzeko baino ez dira baimentzen halako eragiketak.

**36.- JASANDAKO BEZ-A (BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA):**

- 36a) Kengarria baldin bada, aurrekontutik kanpoko hartzekoduna eragingo du.
- 36b) Kengarria baldin bada, kreditua kontsumituko du, ordaindu behar baita.
- 36c) Inoiz ez da kengarria izango.
- 36d) Beti izango da kengarria; beraz, bere aldetik kontabilizatu beharko da.



**37.- FINANTZAKETA ATXIKIA DUEN GASTU BAT(EK):**

- 37a) Aurrekontutik kanpoko gastu bat izan liteke.
- 37b) Urte anitzeko inbertsio-proiektu bat izan behar du nahitaez.
- 37c) Edozein aurrekontu-gastu mota izan liteke, hots, ez bakarrik inbertsio-proiektua.
- 37d) Aurrekontu-aplikazio bakarreko kredituak izan behar ditu esleituak.

**38.- FINANTZAKETA ATXIKIA DUEN GASTU BATEAN:**

- 38a) Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzazio-desbiderapen positiboek Altxortegiko Geldikinari baino ez diote eragiten doiketa.
- 38b) Ekitaldiko finantzaketa-desbiderapenak aldi horretarako aurrekontuetako diru-sarreraren eta gastuen arteko desfasea dira.
- 38c) Finantzazio-desbiderapen positibo metatuek osatzen dute Altxortegiko Geldikin Atxikia.
- 38d) Ekitaldiko finantzazio-desbiderapen negatiboek doiketa positiboa eragiten dute Altxortegiko Geldikinean.

**39.- TRANSFERENTZIA KORRONTE BATEAN, ERAKUNDE EMAILEAK...**

- 39a) Gastua eta obligazioa aldi berean aitortuko ditu.
- 39b) Gastua gauzatzen den ekitaldiko aurrekontuari egotziko dio.
- 39c) Obligazioa aitor dezake gastua aitortu gabe ere.
- 39d) Ordainketak obligazioa aitortu aurretik egin ditzake.

**40.- JASOTAKO KAPITAL-SUBENTZIO BAT...**

- 40a) Aurrekontuko diru-sarrera izanik ere, ez da diru-sarrera ekonomikoa.
- 40b) Ekitaldiko diru-sarrera ekonomikoa da, osorik.
- 40c) Hainbat ekitalditan banatu beharreko diru-sarrera ekonomikoa da.
- 40d) Kobratzen den ekitaldiko diru-sarrera ekonomikoa izango da.

**41.- KREDITUEN LOTURA JURIDIKOAK...**

- 41a) Espezialitatearen aurrekontu-printzipioa malgutzeko eta kreditu-aldaketetako espedienteak tramitatu beharrik ez izateko balio du.
- 41b) Espezialitatearen aurrekontu-printzipioaren zurruntasuna hausten du, eta kredituak aldatzeko modu berezi bat da.
- 41c) Diru-sarreraren aurrekontuaren organo kudeatzaileek errespetatu beharreko muga kualitatibo eta kuantitatiboak ezartzea errazten du.
- 41d) Abenduaren 31n egiten da, aurrekontua kitatzeko prozesuan, aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren Aurrekontu-emaitza, Kreditu-geldikina eta Altxortegiko geldikina kalkulatzearren.

**42.- KREDITU TXERTAGARRIAK DIRELA ETA...**

- 42a) Txertagarriak dira abenduaren 31n aitortutako obligazioei atxikita dauden ordaintze-kredituak.
- 42b) Kreditu-geldikinak txertatzeko beharrezkoa da horretarako behar beste finantza-baliabide izatea.
- 42c) Jatorrizko aurrekontuan zutena ez bezalako xedeaz txertatuko dira kredituak.
- 42d) Abenduaren 31n txertagarri irizten zaizkien kredituak txertatzeko gehienezko epea hurrengo ekitaldiko urriaren 1era artekoa izango da; txertatu ezean, baliogabetu egingo dira.

**43.- GASTU-KONPROMISOA:**

- 43a) Baimendutako eta xedatutako gastu baten ondorioz Erakundearen kontra sortutako kreditu galdagarri bat dagoela aitortzen duen ekintza da.
- 43b) Aurrez aitortutako obligazio bat dela-eta Erakundeak bere altxortegiaren kontrako ordaintze-agindu bat jaulkitzen duen eragiketa da.
- 43c) Zenbateko jakin nahiz gutxi gorabeherako batez gastu bat kreditu baten kontura gauzatzea onartzen duen ekintza da, horretarako kredituaren zenbatekoaren zati bat nahiz oso-osorik gordetzea dakarrena.
- 43d) Legez ezarritako tramiteak beteta, aldez aurretik baimendutako gastuak zenbateko zehatz nahiz zehatz daitekeen batez gauzatzea erabakitzen den ekintza da.

**44.- EKITALDIAREN ITXIERAN (XXXX/12/31), KONTABILITATE-PERIODOKATZEA DELA ETA...**

- 44a) Haren helburua da aldi jakin bati zer aurrekontu-sarrera eta zer aurrekontu-gastu dagozkion mugatzea, aldiko Aurrekontu-emaiza kalkulatzearren, espezializazio-printzipioa aplikatzearen ondorioz.
- 44b) Haren helburua da aldi jakin bati zer diru-sarrera ekonomiko eta zer gastu ekonomiko dagozkion mugatzea, aldiaren Emaiza ekonomikoa kalkulatzearren, sortzapen-printzipioa aplikatzearen ondorioz.
- 44c) Ez da halakorik egiten Kontabilitate Publikoan, enpresen kontabilitate-ereduaren eragiketa propio eta eskusiboa baita, ekitaldiko mozkin edo galera jakiteko helburua duena.
- 44d) Haren helburua da aldi jakin bati zer aurrekontu-sarrera eta zer aurrekontu-gastu dagozkion mugatzea, aldiko Altxortegiko Geldikina kalkulatzearren, espezializazio-printzipioa aplikatzearen ondorioz.

**45.- EUSKADIKO AURREKONTU ERREGIMENARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, HAUEK ARTEAN BEREIZIKO DUTE GASTU KORRONTEETARAKO KREDITUEK:**

- 45a) Inbertsio errealak; inbertsio errealetarako nahiz finantza-eragiketarako Transferentzia eta diru-laguntzak
- 45b) Pertsonal-gastuak; Funtzionamendu-gastuak; Finantza-gastuak; Gastu korronteetarako transferentzia eta diru-laguntzak
- 45c) Zuzeneko zergak; Zeharkako zergak; Tasak eta bestelako diru-sarrerak; Transferentzia eta diru-laguntza korronteak; Ondarezko diru-sarrerak
- 45d) Zuzeneko zergak, zeharkako zergak, tasak eta bestelako diru-sarrerak transferentzia eta diru-laguntza korronteak eta ondarezko diru-sarrerak; Inbertsio errealak, Kapital-transferentzia eta diru-laguntzak; Finantza-aktiboak; Finantza-pasiboak

**46.- EUSKADIKO AURREKONTU ERREGIMENARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, GASTUEN EGOERAKO KREDITUEN SAILKAPEN FUNTZIONALAK...**

- 46a) Ordaintzeko kredituak eta konpromisoko kredituak erabakitzen den antolamendu-unitate bakoitzak egin beharreko jardueren izaeraren arabera bilduko ditu.
- 46b) Erabakitzen den antolamendu-unitate bakoitzari ordaintzeko kredituen eta konpromisoko kredituen kudeaketa esleitzea du helburu.
- 46c) Ordaintzeko kredituak eta konpromisoko kredituak beren izaera ekonomikoaren arabera bilduko ditu.
- 46d) Sarreren aurreikuspenak beren izaera ekonomikoaren arabera bilduko ditu.

**47.- URRIAREN 30EKO SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEI BURUZKO 30/2007 LEGEAREN 135. ARTIKULUAREN ARABERA, BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENDUNARI BEHIN BETIKO ESLEIPENA EZIN BAZAIO EMAN BEHARREZKO BALDINTZAK EZ BETETZEAGATIK:**

- 47a) Deialdi berria egin beharko du Administrazioak nahitaez.
- 47b) Deialdi berria egin aurretik, Administrazioak behin-behineko beste esleipen bat egin lezake haren ondorengo eskatzailearen edo eskaintzaileen alde, eskaintzen sailkapenaren arabera, betiere hori posible bada eta esleipendun berriak ondo iritziz gero.
- 47c) Automatikoki esleituko zaio behin betiko haren ondorengo eskaintzaileari edo eskaintzaileei, eskaintzen sailkapenaren arabera.
- 47d) Deialdi berria egin beharko du Administrazioak nahitaez, baina lehenengo deialdian behin-behineko esleipena izan duen eskaintzaileak ez du deialdi berrira aurkezterik izango.

**48.- 200.000 €-KO AURREKONTUA DUEN GASTUKO KONTRATUA BEHIN BETIKO ESLEITU DIO ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATEK ESKAINTZAILE BATI. KONTRATUA FORMALIZATZEAK ZERTARA BEHARTZEN DU ADMINISTRAZIOA?**

- 48a) Kontratua egiten den datan, zenbateko hura duen gastu-erabilera edo -konpromisoa kontabilizatzen da.
- 48b) Kontratua egiten den datan, zenbateko hura duen obligazio-aitorpena kontabilizatzen da.
- 48c) Kontratua egiten den datan, zenbateko hura duen ordaintze-agindua kontabilizatzen da.
- 48d) Kontratua egiten den datan, zenbateko hura duen esleipendunaren konturako eskubide-aitorpena kontabilizatzen da.

**49.- (400) "ESKUBIDE AITORTUENGATIKO HARTZEKODUNAK, UNEKO EKITALDIA" KONTUA:**

- 49a) 7. taldeko "Izaeraren arabeko salmenta eta diru-sarrerak" kontuen kontura aitortutako aurrekontu-eskubide aitortzeagatik ordaintzen da.
- 49b) Haren saldoa, zorduna, ekitaldi korrante nahiz itxietan kobratzeko dauden obligazio aitortuen isla da.
- 49c) Haren hartzekoaren baturak ordaindutako aurrekontu-obligazioen guztizkoa adierazten du.
- 49d) 6. taldeko "Erosketa eta gastuak" kontuen kontura aitortutako aurrekontu-obligazioengatik ordaintzen da.

**50.- (003.0) "GASTUEN AURREKONTUA. KREDITU ERABILGARRIAK" KONTUA:**

- 50a) (000) "Uneko Ekitaldiko Aurrekontua" kontuan abonatuta kargatzen da, hasierako kredituen balioarekin.
- 50b) Haren saldoa, hartzekoduna, une bakoitzean erabili gabe dauden kredituen isla da; alegia, behin betikoak izanik ere, oraindik atxiki nahiz baimendu ez diren kredituen saldoa da.
- 50c) Haren saldoa, hartzekoduna, konprometitzeko zain dauden gastu-baimenen zenbatekoaren isla da.
- 50d) Haren saldoa, zorduna, diru-sarreraren behin betiko aurreikuspenen isla da.

## ERRESERBAKO GALDERAK

### 51.- **ADIERAZ EZAZU, EUSKAL UNIBERTSITATE-SISTEMARI BURUZKO 2/2004 LEGEAREN ARABERA, HAUETAKO ZEIN ESALDI DEN ZUZENA:**

- 51a) Unibertsitatearen aurrekontuak haren diru-sarrera eta gastu guztiak bilduko ditu.
- 51b) Unibertsitatearen aurrekontuak urte naturalarekin bat datorren urtebeteko iraupena izango du.
- 51c) Unibertsitatearen aurrekontua publikoa bakarra eta orekatua izango da.
- 51d) Aurreko guztiak egia dira.

### 52.- **HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAK, BERE EGINKIZUNAK EGITEAN, ESKUMEN HAUEK DITU:**

- 52a) Euskal Sektore Publikoaren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari buruzko 1/1998 Legearen 2.1 artikulua aipatzen dituen erakundeen kudeaketari buruzko espediente eta dokumentu guztiak aztertzea.
- 52b) Beharrezko jotzen dituen egiaztapen guztiak egitea, esku-diru, balore, salgai eta abarren izakinei dagokienez.
- 52c) Kasu bakoitzean erabakitzea kontrola kontrolatutako organoaren egoitzan nahiz bere egoitzan egingo duen.
- 52d) Aurreko guztiak.

### 53.- **ZER DA ALTXORTEGIKO GELDIKINA?**

- 53a) Kobratzeke dauden aitortutako eskubide garbi guztien batura ken ordaintzeke dauden aitortutako obligazioak gehi altxortegiko funts likidoak eginda lortzen den kopurua.
- 53b) Finantzaketa atxikia duten gastuak ordaintzeko bideratzen dena.
- 53c) Aurrekontu-emaitzari geldikin espezifikoak kenduta lortzen dena.
- 53d) Abenduaren 31n kutxa eta bankuetan ditugun funts likido guztien batura.

### 54.- **FASE HAUEK DIRA POSIBLE ITXITAKO EKITALDIEN AURREKONTUEN EXEKUZIOAN:**

- 54a) Baimendutako kredituak baliogabetzea.
- 54b) Obligazioa aitortzea.
- 54c) Kredituaren erabilera baliogabetzea.
- 54d) Ordainketa agintzea eta ordaintzea.

### 55.- **ADIERAZ EZAZU HAUETAKO ZEIN ESALDI DEN FALTSUA:**

- 55a) Baimentze-fasea da gastu jakin bat, zenbateko jakin nahiz gutxi gorabeherako batekoa, egiteko baimena ematen duen ekintza.
- 55b) Erabilera edo konpromisoa da aurrez onetsitako gastuak, zenbatetsitako zenbateko bati dagozkionak, egiteko erabakia.
- 55c) Obligazioa aitortzea da autoritate eskudunak hirugarren baten aldeko zor bat, formalki eta hark konprometitutako zerbitzua eman izanaren ondorioz, onartzen duen ekintza administratiboa, 'zerbitzu eginaren' printzipioari jarraiki.
- 55d) Aurrekontu-gastuen exekuzioaren bi fase nahiz gehiago ekintza administratibo bakar batean metatzeak fase horiek beste hainbeste ekintza bereiziz egiteak sortuko lituzkeen ondorio berak sortzen ditu.

**56.- JASANARAZITAKO BEZ-A (BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA):**

- 56a) Ez zaie inoiz gehituko erakunde publiko batek jaulkitako fakturei.
- 56b) Kontabilizatuz gero, aurrekontu-hartzekodun bat eragingo du.
- 56c) Kobratuz gero, aurrekontu-sarrera bat da.
- 56d) Beti hartuko da aurrekontutik kanpoko eragiketatzat.

**57.- FINANTZAKETA ATXIKIA DUEN GASTU BATEN FINANTZAKETA-KOEFIZIENTEA:**

- 57a) Finkoa izango da jaso beharreko diru-sarrerak benetan egindako gastuarekiko kuantifikatzen direnean, portzentaje moduan.
- 57b) Finkoa izango da jaso beharreko diru-sarrerak kopuru finko bat direnean, egin beharreko gastuaren zenbatekoa edozein dela ere.
- 57c) Partziala izango da adierazten duenean gastuaren zer zati estaltzen duen hari atxikitako diru-sarrera guztien baturak.
- 57d) Globala izango da adierazten duenean gastuaren zer zati estaltzen duen hari atxikitako diru-sarreraren zati batek, zati hori diru-sarreraren aurrekontu-kontzeptuaren arabera hautatua izanik.

**58.- DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN KUDEAKETA ONDOZ ONDOKO EDO ALDIBEREKO FASE HAUETAN GAUZATUKO DA:**

- 58a) Gastua onestea; Gastuaren erabilera edo konpromisoa; Obligazioa aitortzea, Ordainketa agintzea, Ordaintzea.
- 58b) Kreditua atxikitzea; Gastua onestea; Gastuaren erabilera edo konpromisoa; Obligazioa aitortzea; Ordainketa agintzea; Ordaintzea.
- 58c) Kreditua atxikitzea; Kreditua aldatzea; Gastua onestea; Gastuaren erabilera edo konpromisoa; Obligazioa aitortzea; Ordainketa agintzea; Ordaintzea.
- 58d) Eskubidea aitortzea; Eskubidea iraungitzea ala kobratzea.

**59.- BEHIN EKITALDI-AMAIERAKO ETA AURREKONTU-ITXIERAKO KONTABILITATE-ERAGIKETAK KONTABILIZATUTA, KONTABILITATEAREN ITXIERA-IDAZPENA, XXXX/12/31KOA, HONELAKOA IZANGO DA:**

- 59a) Ekitaldi-amaieran Saldo Hartzekoduna duten kontu guzti-guztiak beren saldoaren arabera abonatzen dira, eta berdin kargatzen dira ekitaldi-amaieran Saldo Zorduna duten kontu guztiak.
- 59b) Balantzeko Pasiboan ageri diren kontu guztiak abonatzen dira, eta Balantzeko Aktiboan ageri direnak kargatzen dira.
- 59c) Ekitaldi-amaieran Saldo Hartzekoduna duten kontu guzti-guztiak beren saldoaren arabera kargatzen dira, eta berdin abonatzen dira ekitaldi-amaieran Saldo Zorduna duten kontu guztiak.
- 59d) Balantzeko Pasiboan ageri diren kontu guztiak kargatzen dira, eta Balantzeko Aktiboan ageri direnak abonatzen dira.

**60.- ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN X. TITULUA...**

- 60a) Ekonomia eta Ogasunari buruzkoa da.
- 60b) Oinarrizko eskubide eta eginbeharrei buruzkoa da.
- 60c) Koroari buruzkoa da.
- 60d) Konstituzioa eraldatzeari buruzkoa da.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

# **LAN-POLTSA: "KUDEAKETA-TEKNIKARIAK – EKONOMIA- ETA ENPRESA- ZIENTZIETAN LIZENTZIATUAK"**

**BIGARREN ZATIA**

Bilboko Ingeniaritza  
Goi Eskola Teknikoa

2010eko martxoaren 12a

## **BIGARREN ZATIA**

### **1. KASU PRAKTIKOA**

## **1. KASU PRAKTIKOA**

Kontabilitate Publikoko Plan Orokorraren arabera kudeatzen du bere kontabilitatea EHUK.

2009. urtean, II. Eranskinean ageri den Balantzea onetsi zuen Unibertsitateak. 2010. urterako gastu-sarreraren aurrekontua I. Eranskinean ageri da.

6. kapituluan —“Inbertsio Errealak”— inbertsio-proiektu hauek ageri dira:

1. **“Bizkaiko Campuseko argindar-instalazioa”**. 2010 eta 2011 ekitaldietan gauzatuko da, eta zuzkidura hauek esleitu zaizkio:

2010. urtean: 20.000                      2011. urtean: 10.000    Proiektua, guztira: 30.000

Proiektuaren finantzaketa osoa Autonomia Erkidegoaren ekarpenen bidez egingo da, eta % 30 lanen hasieran jasoko da, hala hitzartu baita, eta gainerakoa lanak amaitutakoan, inbertitutako zenbatekoa aldeztatik aurretik aurkeztuta betiere. Aurrekontuan ustez jasoko den kopurua adierazi da.

2. **“Unibertsitate-egoitza eraikitzea”**, 2006. urtean hasitakoa eta 2008. urtean amaitzekoa zena. Zuzkidura hauek esleitu zaizkio:

2009. urtean: 60.000    2010. urtean: 100.000    2011. urtean: 40.000    Guztira: 200.000

Aurrekontuaren erdia (100.000 €) Autonomia Erkidegoaren ekarpenez finantzatzen da. Kopuru horren erdia Proiektuaren hasieran jaso zen, eta, horrela hitzartu baita, gainerakoa lanak amaitutakoan jasoko da.

Aurreko urtean 50.000 €-ko eskubideak aitortu ziren, eta proiektu honen kontura 60.000 €-ko obligazioak ordaindu ziren; gainera, 2010 eta 2011. urteetarako kopuruak aitortu eta konprometitu ziren.

### **Oharrak:**

- Ez da 430 (“Aitortutako eskubideengatiko zordunak, uneko ekitaldian”) eta 431 (“Aitortutako eskubideengatiko zordunak, itxitako ekitaldietan”) kontuetako eta azpikonturik eramaten.
- Kasu honetan ez da egingo epe luzearen eta epe laburraren arteko birsailkapenik.

Eragiketa hauek egin dira ekitaldian zehar:

1. Kontabilitatea irekitzea (zenbateko osoez egin daiteke idazpena).
2. Aurrekontua irekitzea (zenbateko osoez egin daiteke idazpena).
3. Aurrekontuaren 1. kapituluko (pertsoneko-gastuak) zenbatekoaz AD agiriak jaulkitzea.
4. Aurreko ekitaldian esleitutako “Unibertsitate-egoitza eraikitzea” proiektuari dagokion baimentze- eta konpromisoko ‘AD’ agiria jaulki eta kontabilizatu da ekitaldi honetarako.
5. Administrazio-tasen eskubideak aitortu dira; hauek dira zenbatekoak:
  - Master-tasak: 5.040 €
  - Idazkaritza-tasak: 2.730 €
  - Doktoretza-tasak: 15.000 €



6. Bankuan 62.000 €-ko sarrerak izan dira, Euskal Herriko sektore publikoaren parte-hartzea dela eta.
7. Unibertsitateak hiru urtez atzeratu dio zorren ordainketa 2009. urteaz geroztik 5.450 € eta 2010. urteaz geroztik 4.800 €-ko zorrak dituen enpresa bati.
8. Kontzeptu eta zenbateko hauetako diru-sarrerak izan dira bankuan:
  - Idazkaritza-tasak: 2.730 €
  - Doktoretza-tasak: 15.000 €
  - Master-tasak: 3.640 €
  - Zerbitzu-salmenta: 36.000 €
9. "Bizkaiko Campuseko argindar-instalazioa" proiektua, 30.000 €-koa, onetsita, 'A' agiria jaulki eta kontabilizatu da.
10. Aurreko ataleko proiektua 29.600 €-an esleitu da; beraz, dagozkion agiriak jaulki eta kontabilizatu behar dira.
11. "Bizkaiko Campuseko argindar-instalazioa" proiektuko lanak hasita, Autonomia Erkidegoak ekitaldi honetarako hitzartua duen zenbatekoa jaso da bankuan.
12. Aurreko ataleko proiektuari buruzko urteko lehen obra-ziurtagiria (lehena eta bakarra) jaso da, 19.600 €-koa, eta hari dagokion 'O' agiria jaulki eta kontabilizatu da. Orobat gauzatu da ordainketa.
13. Kontzeptu eta zenbateko hauetako obligazioak aitortu dira pertsonalaren nominak direla eta:
  - 12. art. Funtzionarioak: 330.000 €
  - 13. art. Lan-itunpekoak: 106.174 €
  - 16. art. Kuota sozialak: 57.630 €

Ordain horiei aplikatu beharreko deskontuak hauek dira:

- PFEZaren konturako atxikpenak: 36.000 €
- Gizarte Segurantzaren kuoten atxikpenak: 37.430 €
- Dibortzio-epaiak agindutako atxikipena: 11.000 €

Dagozkien kontuetan aplikatu dira deskontu horiek. Nominan ordaindu beharreko kopuru likidua 351.744 € dira, eta nominaren zenbateko garbi hori bankuari transferitzeko agindua eman da.

14. Hiri-lurzoruaren jabe batek aprobetxamenduaren % 10 legez eman behar duela eta, lursail bat jaso du Unibertsitateak. 50.000 €-an balioztatu da lursaila.
15. Aurreko ataleko lursaila 60.000 €-an saldu eta kobratu da, eta zenbateko horren transferentzia jaso da bankuan. Besterentze haren zenbatekoa hurrengo ekitaldian gauzatuko da Industria Ingeniarien Eskolan egiten ari diren obran.
16. "Unibertsitate-egoitza eraikitzea" proiektuaren obra-ziurtagiria jaso da, 100.000 €-koa; onetsi eta ordaintzeko agindua eman da.
17. Bankuaren bidez ordaindu zaie epe laburreko hartzekodunei 2009.12.31 egunean zor zaien kopurua.
18. 31.000 €-an erositako eraikin bat laga dio Unibertsitateak erakunde autonomo bati. Amortizazio metatua 2.400 €-koa da.
19. Aurrekontuan transferentzia korronteei dagokien kantitatea jaso da. Halaber jaso da aurrekontuan kapital-transferentzietan dagokien kantitatearen % 75.

**HAU ESKATZEN DA:**

1. 2009.12.31-ko Altxortegi-geldikina, bai eta egun horretan bertan gastu orokorretarako eskura dagoen Altxortegi-geldikina ere.
2. 2010 ekitaldiko aurrekontu-emaitza. Halaber superabita edo defizita, aintzat hartuta finantzaketa atxikia duten desbideraketak.

**OHARRAK:**

1. Bi kasuetan zerrendatu beharko dira, eta justifikatu, azken zenbatekoa osatzen duten partidak.
2. Ez da zertan idazpenak egin.

I.  
ERANSKINA

2010 AURREKONTUA

<b>GASTUEN AURREKONTUA</b>		<b>DIRU-SARREREN AURREKONTUA</b>	
<b>1. Kapitulua. Pertsonal gastuak</b>	<b>507.728,00</b>	<b>3. Kapitulua. Tasak eta beste zenbait diru-sarrera</b>	<b>115.312,00</b>
12. art. Funtzionarioak	340.000,00	31. art. Zerbitzu-salmenta	38.200,00
13. art. Lan-itunpekoak	107.574,00	32. art. Tasa akademiko eta administratiboak	77.112,00
15. art. Beste	900,00		
16. art. Gizarte-kuota, -prestazio eta -gastuak	59.254,00		
<b>2. Kapitulua. Funtzionario-gastuak</b>	<b>180.268,00</b>	<b>4. Kapitulua. Transferentzia korranteak</b>	<b>619.700,00</b>
20. art. Alokairuak	3.194,00	45. art. Euskal sektore publikotikoak	619.700,00
21. art. Makinen konponketak eta mantentze-lanak	8.858,00		
22. art. Bulego-materiala	4.066,00		
23. art. Hornikuntzak	19.946,00		
24. art. Bestelako gastuak	15.172,00		
25. art. Beste enpr. egindako lanak	46.600,00		
26. art. Zerbitzuarengatiko kalte-ordainak	8.632,00		
27. art. Kanpo-kontratuak	73.800,00		
<b>3. Kapitulua. Finantza-gastuak</b>	<b>5.800,00</b>	<b>5. Kapitulua. Ondarezko diru-sarrerak</b>	<b>3.300,00</b>
32. art. EAEko administrazioarekiko zorren interesak	4.422,00	52. art. Gordailuen interesak	2.400,00
33. art. Beste erakundeekiko zorren interesak	1.378,00	55. art. Emakida eta aprobetxamendu bereziak	900,00
<b>4. kapitulua. Gastu korranteen transferentzia eta diru-laguntzak</b>	<b>9.268,00</b>	<b>7. Kapitulua. Kapital-transferentziak</b>	<b>89.600,00</b>
48. art. Familiei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei	9.268,00	75. art. Euskal sektore publikotikoak	89.600,00
<b>6. Kapitulua. Inbertsio errealak</b>	<b>170.718,00</b>	<b>9. Kapitulua. Finantza-pasiboak</b>	<b>48.412,00</b>
61. art. Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	120.804,00	93. art. Beste erakundeekiko zorrak	48.412,00
62. art. Makinak, tresnak eta instalakuntzak	1.202,00		
64. art. Altzari eta lanabesak	4.676,00		
65. art. Informazioa prozesatzeko ekipoak	7.132,00		
66. art. Zientzia-ekipamendua	26.586,00		
67. art. Beste zenbait ibilgetu material	10.318,00		
<b>8. Kapitulua. Finantza-aktiboen balio-aldatzea</b>	<b>174,00</b>		
82. art. Maileguak ematea	174,00		
<b>9. Kapitulua. Finantza-pasiboak</b>	<b>2.368,00</b>		
92. art. Administrazio publikoarekiko zorrak amortizatzea	2.368,00		
<b>GUZTIRA</b>	<b>876.324,0</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>876.324,00</b>

**II.  
ERANSKINA**

**2009.12.31ko BALANTZEA**

**AKTIBOA**

**A) Ibilgetua**

<b>1. Ibilgetu immateriala</b>	<b>16,00</b>
<b>2. Ibilgetu materiala</b>	<b>400.546,00</b>
Lurrak eta ondasun naturalak	241.700,00
Eraikinak	157.042,00
Altzariak	60.884,00
Amortizazioak	-59.080,00
<b>3. Ibilgetu finantzarioa</b>	<b>3.882,00</b>

**B) Aktibo zirkulatzaila**

<b>1. Zordunak</b>	<b>161.870,00</b>
Aitortutako eskubideengatiko zordunak	157.568,00
Hainbat zordun	1.760,00
Pertsonalari eginiko aurrerakinak	850,00
Administrazio publikoak	1.692,00
<b>2. Altxortegia</b>	<b>35.114,00</b>
Kutxa	14,00
Banku eta kreditu-erakundeak	35.100,00

**GUZTIRA 601.428,00**

**PASIBOA**

**A) Funts propioak**

<b>1. Ondarea</b>	<b>486.924,00</b>
Ondarea	405.018,00
Aurreko ekitaldietako emaitzak	56.612,00
Uneko ekitaldiko emaitzak	25.294,00

**B) Arrisku eta gastuetarako hornidurak**

<b>1. Arrisku eta gastuetarako hornidurak</b>	<b>5.962,00</b>
---	-----------------

**C) Epe luzeko hartzekodunak**

<b>1. Epe luzeko hartzekodunak</b>	<b>31.564,00</b>
------------------------------------	------------------

**D) Epe laburreko hartzekodunak**

<b>1. Kreditu-erakundeekiko zorrak</b>	<b>2.202,00</b>
<b>2. Beste zorrak</b>	<b>74.776,00</b>
Aitortutako obligazioengatiko hartzekodunak	56.628,00
Hainbat hartzekodun	1.800,00
Administrazio publikoak	15.798,00
Beste zorrak	550,00

**GUZTIRA 601.428,00**

## **BIGARREN ZATIA**

### **2. KASU PRAKTIKOA**

## 2. KASU PRAKTIKOA

### 1. atala

2009ko abenduaren 31n, XYZ erakunde publikoak saldo hauek ageri ditu:

100. Ondarea.....163.000	170. Kred.-erakundeekiko epe luzerako zorrak 45.000
220. Lur eta ond. natur.-etako inbertsioak 68.500	221. Eraikuntzetako inbertsioak ..... 135.000
226. Altzariak .....13.500	227. Ekipo informatikoak .....7.200
282. Ibilgetuaren amortizazio metatua.....19.000	400. Uneko ekitaldiko A.O.H.....9.000
401. Ekitaldi itxietako A.O.H..... 750	430. Uneko ekitaldiko A.E.Z. .... 20.600
431. Ekitaldi itxietako A.E.Z. .... 6.800	433. Uneko ekitaldiko eskubide baliogabetuak .1.100
434. Ekitaldi itxietako eskubide baliogabetuak 800	475. Ogasun Pub., hartzekoduna .....2.800
476. Gizarte-Seg.-ko erak., hartzekodunak ... 300	572. Bankuak..... 48.500
628. Hornikuntzak ..... 8.600	629. Bestelako zerbitzuak ..... 15.000
640. Soldatak .....45.700	642. Enpresaren konturako Giz.-Segur..... 13.500
662. Epe luzerako zorren interesak ..... 2.300	680. Ekit. itx. eskub. baliogab.-gatiko galerak.... 800
691. Ibilgetua amortizatzen zuzkidura ..... 2.750	720. Zuzeneko zergak ..... 66.400
721. Zeharkako zergak.....18.750	742. Emakidengatiko diru-sarrerak..... 13.100
751. Jasotako transferentzia korranteak..... 5.250	755. Jasotako kapital-transferentziak ..... 43.500

Erakundearen Gastu-Sarreraren Aurrekontuaren exekuzioari buruzko informazioa, berriz, hau da:

#### ► Uneko ekitaldia:

KAPITULU A	HASIERAKO KREDITUA	ALDAKETAK	BEHIN BETIKO KREDITUA	KREDITU EZ ESKURAGARRIA	KREDITU BAIMENDUA	KREDITU KONPROMETITUA	AITORTUTAKO OBLIGAZIOAK	EGINDAKO ORDAINKETAK
1	59.200		59.200		59.200	59.200	59.200	58.000
2	30.000		30.000	1.875	25.500	23.650	23.600	23.600
3	2.300		2.300		2.300	2.300	2.300	2.300
6	63.000	7.500	70.500		70.200	70.200	51.700	44.250
	154.500	7.500	162.000	1.875	157.200	155.350	136.800	127.800

KAPITULUA	HASIERAKO AURREIKUSPENAK	ALDAKETAK	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK	AITORTUTAKO ESKUBIDEAK	ESKUBIDE BALIOGABETUAK K	AITORTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK	BILDUTAKOAK
1	67.500		67.500	67.500	1.100	66.400	58.850
2	22.500		22.500	18.750		18.750	16.500
3	15.750		15.750	13.100		13.100	9.400
4	5.250		5.250	5.250		5.250	5.250
7	43.500		43.500	43.500		43.500	37.500
8		7.500	7.500				
	154.500	7.500	162.000	148.100	1.100	147.000	127.500

#### ► Itxitako ekitaldiak:

EKITALDIA	AITORTUTAKO OBLIGAZIOAK			EGINDAKO ORDAINKETAK	2009/12/31n ORDAINTZEKE DAUDEN OBLIGAZIOAK
	HASIERAKO SALDOA URTARRILAREN 1ean	OBLIGAZIOEN BALIOGABETZEA	GUZTIZKOAK		
2008	7.500	-	7.500	6.750	
GUZTIZKO OROKORRA	7.500	-	7.500	6.750	

EKITALDIA	AITORTUTAKO ESKUBIDEAK			BILDUTAKOAK	2009/12/31n KOBRAZTEKE DAUDEN ESKUBIDEAK
	HASIERAKO SALDOA URTARRILAREN 1ean	ESKUBIDEEN BALIOGABETZEA	GUZTIZKOAK		
2008	15.800	800	15.000	9.000	
GUZTIZKO OROKORRA	15.800	800	15.000	9.000	

Informazio gehigarria:

- Gastuen aurrekontuaren aldaketa ekipo informatiko bat erosteko kreditu-geldikinen gehikuntza bati dagokio, eta altxortegiko geldikinen bidez finantzatu da. Ekipoaren prezioa 7.200 m.u. (moneta-unitate) izan da.
- Gastu-aurrekontuaren 6. kapituluaren gainerakoa eraikinetan egin beharreko inbertsioak dira, eta guztira 120.000 m.u.-ko kostu estimatua duen bi urteko proiektu bati dagozkio. Hasiera batean gastua honela banatuko dela jo da:
  - 2009. urtean: 63.000
  - 2010. urtean: 57.000
- Proiektuaren zati bat Erakunde Publiko batek finantzatzen du, eta ekarpen hauek aurreikusitako dira:
  - 2009. urtean: 43.500
  - 2010. urtean: 28.500
- Diru-sarreraren aurrekontuaren 7. kapitulua osorik dagozkie ekarpen horiei.

**HAU ESKATZEN DA:**

**a.- 2009.12.31ko erregularizatzeko eragiketak (diru-sarreraren aurrekontuarenak nahiz ekonomia-ondarezkoak)**

**b.- 2009 ekitaldiaren Aurrekontu-emaitza**

## 2. atala

Lau urtetan luzatu den obra bat egin du erakunde publiko batek. Guztira 120.000 gastatu dira, eta finantzaketaren % 60 Foru Aldundiak emana da. Iragandako urteetan gastu eta sarrerak hauek izan dira:

<u>Urtea</u>	<u>Gastuak</u>	<u>Sarrerak</u>
/01	30.000	24.000 (F.A.)
/02	20.000	24.000 (F.A.)
/03	40.000	24.000 (F.A.)
/04	Obra amaitu da	

**HAU ESKATZEN DA:** Kalkulatu finantzaketaren desbiderapenak urte bakoitzeko, eta adierazi zer eragin izan duten eragiketa horiek, ekitaldi bakoitzean, Aurrekontu-emaitzan eta Altxortegiko Geldikinetan.

## 3. atala

### **HAU ESKATZEN DA:**

#### **KONTABILIZATU ERAGIKETA HAUEK:**

- a) Erakunde Publiko batek gastu hauek konprometituak ditu :
- 120. kontzeptua. Oinarrizko ordainsariak ..... 20.000
  - 121. kontzeptua. Ordainsari osagarriak..... 30.000
  - 160. kontzeptua. Gizarte Segurantzaren kuotak ..... 12.000
- Pertsonal-gastu guztien obligazioak aitortu dira.
  - Langileei ordaindu egiten zaie. PFEZaren atxikipean 9.500 dira, eta Gizarte Segurantzaren deskontuak 3.000.
  - Gizarte Segurantzaren zor GUZTIAK ordaintzen dira.
- b) 57.000ko kreditu bat dauka Erakunde Publiko batek 622. kontzeptuan (Eraikinak). Liburutegia bertan instalatzeko eraikin bat erosi nahi da, baina haren prezioa 70.000 da.
- Kreditua nahikoa ez denez, beste Erakunde Publiko batekin hitzarmen bat sinatu da hark 10.000 ipintzeko, eta gainerakoa altxortegiko geldikinaz finantzatzeko da. Kreditua aldatzeko beharrezko espedientea tramitatu da.
  - Gerora 'A' eta 'D' agiriak jaulki dira kredituaren osoko zenbatekoagatik, eta transferentzia kobratzeko eskubidea aitortu da.
  - Higiezina erosi da haren prezioaren % 30 lurraren balioari dagokiola aintzat hartuta, eta banku-transferentzia bidez ordaindu da.
- c) Bankuaren bidez, 120.000 m.u. kobratu ditu Erakunde Publiko batek bere lokal batzuk salduta. Honela ageri ziren haiek Balantzean: eraikuntzaren balioa: lurraren balioa: 15.000. Gainera, badakigu % 40 amortizatuta daudela.
- RD eta C faseak besterik ez kontabilizatu.



#### 4. atala

Kasurako, jo dezagun Bizkaia Unibertsitate Publikoaren (BUP) Aurrekontuaren Gastuen Egoera Programak sailkatua dela, sailkapen Funtzionalaren (Funtzio-taldea; Funtzioa; Programa Funtzionala; Azpiprograma), Ekonomikoaren (Kapitulua; Artikulua; Kontzeptua; Azpikontzeptua) eta Organikoaren (Unitate Arduraduna) arabera. Diru Sarreraren Egoera, berriz, sailkapen ekonomikoaren arabera bakarrik (Kapitulua; Artikulua; Kontzeptua; Azpikontzeptua).

Hau da 2010 ekitaldirako BUPen Kontabilitate Aplikatuko Ikerkuntza Institutuari (KAI) dagokion aurrekontu-informazioa:

Programa		2010eko aurrekontua. Gastuen egoera. Unitate arduraduna: <i>Ikerkuntzako Errektoreordetza (003)</i> 2: Ikerkuntza 22: Ikerkuntza aplikatua 221: Ikerkuntza Institutuak: <i>(221.10) Kontabilitate Aplikatuko Ikerkuntza Institutua</i>	3.167.945
FUNTZ.	EKON.		
221.10	12010	Irakasleentzako ordainak —Katedradunak—	656.299
221.10	12010	Irakasleentzako ordainak —Titularrak—	458.529
221.10	12110	Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalarentzako ordainak — Funtzionarioak—	342.214
221.10	13090	Lan-itunpeko irakasleentzako ordainak —besteren finantzaketaz kontratatutako IIL—	815.430
22110	16009	Katedratikoen kuota patronala	582.591
22110	16010	Titularren kuota patronala	35.132
22110	16013	Besteren finantzaketaz kontratatutako IILen kuota patronala	2.000
22110	16030	AZP funtzionarioen kuota patronala	13.000
22110	16220	IILen prestakuntza eta trebakuntza	18.000
22110	20101	Eraikin eta beste eraikuntzen alokairuak	7.650
22110	20500	Fotokopiagailuen alokairua	7.150
22110	21100	Eraikin eta beste eraikuntzen kontserbazioa	17.400
22110	21209	Makinaria, tresna eta lanabesen kontserbazioa	4.600
22110	21600	Informazioa prozesatzeko ekipamenduaren kontserbazioa	1.000
22110	21900	Beste ibilgetuen kontserbazioa	2.600
22110	22000	Bulegoko material inbentariaezin arrunta	10.000
22110	22300	Argindar-hornidura	3.500
22110	23300	Irakasmateriala	14.000
22110	22400	Posta bidezko komunikazioa	3.600
22110	22403	Telefono bidezko komunikazioa —Telefonia mugikorra—	3.300
22110	24200	Aseguru-primak	10.000
22110	24400	Protokolo- eta ordezkarietako arreta	5.650
22110	24700	Bilera, hitzaldi eta ikastaroak	58.250
22110	25100	Argitalpenak	23.000
22110	25600	Informatika-zerbitzuak	8.800
22110	25901	Erreprografia- eta koadernaketa-gastuak	12.250
22110	26000	Mantenu-, egonaldi- eta joan-etorrietako gastuak	5.500
22110	48108	Bekak eta ikasteko laguntza orokorrak	19.000
22110	65000	Informazioa prozesatzeko ekipoak —Informazio-ekipoak—	4.000
22110	67000	Bibliografia-funtsak	8.000
22110	68000	Aplikazio informatikoak	2.500

2010eko aurrekontua. Diru-sarreraren egoera. Unitate arduraduna: <i>Ikerkuntzako Errektoreordetza (003)</i>		
<i>Kontabilitate Aplikatuko Ikerkuntza Institutua</i>		3.167.945
EKON.		
31010	Argitalpen Zerbitzua	35.132
31050	Kanpo-kontratuak	2.500.000
46000	EHUK egindako transferentzia korrontea	605.313
76000	EHUK egindako kapital-transferentzia	14.500
82700	Pertsonalari eginiko aurrerakin eta maileguen itzulera	13.000

## **HAU ESKATZEN DA:**

A.- Lotu juridikoki KAIren Gastu Aurrekontuko kredituak Aurrekontuak Exekutatzeko Arauan ezarritako irizpide hauek aplikatuta, eta ondorioztatu zer kreditu eskuragarri gelditzen den sortzen diren lotura-poltsetako bakoitzean:

- **Transferentzia korronteei, Inbertsio errealei, Kapital-transferentziei eta Finantza-aktiboei buruzko Gastuetan, PROGRAMA FUNTZIONALA ETA ARTIKULUA**
- **Pertsonal-gastuei, Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuei, Finantza-gastuei eta Finantza-pasiboei buruzko Gastuetan, PROGRAMA FUNTZIONALA ETA KAPITULUA**

B) Aintzat hartuta, alde batetik, Aurrekontuak Exekutatzeko Arauan ezarritako irizpideak aplikatzearen ondorioz Gastu-aurrekontuan egindako kreditu-lotura, eta, bestetik, ez dela ezein kontzepturengatik inongo gastu-eragiketarik egin programa funtzional horren gainean, egiazta ezazu badagoela kreditua eragiketa hauetan (arrazoitu itzazu erantzunak):

B.1.- Birus informatiko batek eragindako kalte konponezinak direla eta, eskumena duen organoak eskatu du gehienez 3.700 € balio luketen aplikazio informatiko berriak erosteko nahikoa kreditua badagoen argitzeko txostena egin dadila.

B.2.- Organismoaren arrisku guztiak estaltzen dituen aseguru-polizaren urteko prima eguneratua, aurrekontu honi dagokiona, 12.000 €-koa da. Eskumena duen organoak onetsi du, eta urtarilaren lehen hamabostaldian ordaindu behar da.

## **BIGARREN ZATIA**

### **3. KASU PRAKTIKOA**

### 3. KASU PRAKTIKOA

#### 1. atala

Kasurako, jo dezagun Bizkaia Unibertsitate Publikoaren (BUP) Aurrekontuaren gastuen Egoera Orria Programara sailkatua dela, sailkapen Funtzionalaren (Funtzio-taldea; Funtzioa; Programa Funtzionala; Azpiprograma), Ekonomikoaren (Kapitulua; Artikulua; Kontzeptua; Azpikontzeptua) eta Organikoaren (Unitate Arduraduna) arabera. Diru Sarrereren Egoera, berriz, sailkapen ekonomikoaren arabera bakarrik (Kapitulua; Artikulua; Kontzeptua; Azpikontzeptua).

Hau da 2010 ekitaldirako BUPen Kontabilitate Aplikatuko Ikerkuntza Institutuari (KAI) dagokion aurrekontu-informazioa:

Programa		2010eko aurrekontua. Gastuen egoera. Unitate arduraduna: <i>Ikerkuntzako Errektoreordetza (003)</i> 2: Ikerkuntza 22: Ikerkuntza aplikatua 221: Ikerkuntza Institutuak: <i>(221.10) Kontabilitate Aplikatuko Ikerkuntza Institutua</i>	3.167.945
FUNTZ.	EKON.		
221.10	12010	Irakasleentzako ordainak —Katedradunak—	656.299
221.10	12010	Irakasleentzako ordainak —Titularrak—	458.529
221.10	12110	Administrazio eta Zerbitzuetako pertsonalarentzako ordainak — Funtzionarioak—	342.214
221.10	13090	Lan-itunpeko irakasleentzako ordainak —besteren finantzaketaz kontratatutako IIL—	815.430
22110	16009	Katedratikoen Kuota Patronala	582.591
22110	16010	Titularren kuota patronala	35.132
22110	16013	Besteren finantzaketaz kontratatutako IILen kuota patronala	2.000
22110	16030	AZP funtzionarioen kuota patronala	13.000
22110	16220	IILen prestakuntza eta trebakuntza	18.000
22110	20101	Eraikin eta beste eraikuntzen alokairuak	7.650
22110	20500	Fotokopiagailuen alokairua	7.150
22110	21100	Eraikin eta beste eraikuntzen kontserbazioa	17.400
22110	21209	Makinaria, tresna eta lanabesen kontserbazioa	4.600
22110	21600	Informazioa prozesatzeko ekipamenduaren kontserbazioa	1.000
22110	21900	Beste ibilgetuen kontserbazioa	2.600
22110	22000	Bulegoko material inbentariaezin arrunta	10.000
22110	22300	Argindar-hornidura	3.500
22110	23300	Irakasmateriala	14.000
22110	22400	Posta bidezko komunikazioa	3.600
22110	22403	Telefono bidezko komunikazioa —Telefonia mugikorra—	3.300
22110	24200	Aseguru-primak	10.000
22110	24400	Protokolo- eta ordezkartzako arreta	5.650
22110	24700	Bilera, hitzaldi eta ikastaroak	58.250
22110	25100	Argitalpenak	23.000
22110	25600	Informatika-zerbitzuak	8.800
22110	25901	Erreprografia- eta koadernaketa-gastuak	12.250
22110	26000	Mantenu-, egonaldi- eta joan-etorrietako gastuak	5.500
22110	48108	Bekak eta ikasteko laguntza orokorrak	19.000
22110	65000	Informazioa prozesatzeko ekipoak — Informazio-ekipoak—	4.000
22110	67000	Bibliografia-funtsak	8.000
22110	68000	Aplikazio informatikoak	2.500

2010eko aurrekontua. Diru-sarrereren egoera. Unitate arduraduna: <i>Ikerkuntzako Errektoreordetza (003)</i>		
<i>Kontabilitate Aplikatuko Ikerkuntza Institutua</i>		3.167.945
EKON.		
31010	Argitalpen Zerbitzua	35.132
31050	Kanpo-kontratuak	2.500.000
46000	EHUk egindako transferentzia korrontea	605.313
76000	EHUk egindako kapital-transferentzia	14.500
82700	Pertsonalari eginiko aurrerakin eta maileguen itzulera	13.000

### **HAU ESKATZEN DA:**

**A.- Lotu juridikoki KAIren Gastu Aurrekontuko kredituak Aurrekontuak Exekutatzeko Arauan ezarritako irizpide hauek aplikatuta, eta ondorioztatu zer kreditu eskuragarri gelditzen den sortzen diren lotura-poltsetako bakoitzean.**

- **Transferentzia korronteei, Kapital-transferentziei eta Finantza-aktiboei buruzko Gastuetan, PROGRAMA FUNTZIONALA ETA ARTIKULUA**
- **Inbertsio errealei buruzko Gastuetan, PROGRAMA FUNTZIONALA ETA KONTZEPTUA**
- **Pertsonal-gastuei, Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuei, Finantza-gastuei eta Finantza-pasiboei buruzko Gastuetan, PROGRAMA FUNTZIONALA ETA KAPITULUA**

**B) Aintzat hartuta, alde batetik, Aurrekontuak Exekutatzeko Arauan ezarritako irizpideak aplikatzearen ondorioz Gastu-aurrekontuan egindako kreditu-lotura, eta, bestetik, ez dela ezein kontzepturengatik inongo gastu-eragiketarik egin programa funtzional horren gainean, egiazta ezazu badagoela kreditua eragiketa hauetan (Arrazoitu erantzunak):**

**B.1.- Birus informatiko batek eragindako kalte konponezinak direla eta, eskumena duen organoak eskatu du gehienez 3.700 € balio luketen aplikazio informatiko berriak erosteko nahikoa kreditua badagoen argitzeko txostena egin dadila.**

**B.2.- Organismoaren arrisku guztiak estaltzen dituen aseguru-polizaren urteko prima eguneratua, aurrekontu honi dagokiona, 12.000 €-koa da. Eskumena duen organoak onetsi du, eta urtarilaren lehen hamabostaldian ordaindu behar da.**

## 2. atala

2009ko abenduaren 31n, informazio hau dago Bizkaia Unibertsitate Publikoaren Kontabilitate Aplikatuko Ikerkuntza Institutuaren (KAIIn) Gastu-Sarreraren Aurrekontuaren exekuzioari buruz (BUPen aurrekontuan integratzen den aurrekontu propioa duen erakundea da KAIIn):

### ➤ Uneko ekitaldia:

KAPITULUA	HASIERAKO KREDITUA	ALDAKETAK	BEHIN BETIKO KREDITUA	KREDITU BAIMENDUA*	KREDITU KONPROMETITUA *	AITORTUTAKO OBLIGAZIOAK	EGINDAKO ORDAINKETAK	ORDAINTZEKE
1	4.324.700,00	-80.000,00	4.244.700,00	4.244.700,00	4.244.700,00	4.239.371,36	4.172.027,63	67.343,73
2	9.581.652,00	1.133.518,42	10.715.170,42	10.535.948,75	10.384.723,56	10.214.124,49	8.358.432,15	1.855.692,34
4	145.750,00	34.257,90	180.007,90	180.007,90	172.656,06	115.406,06	111.086,06	4320,00
6	6.160.000,00	8.547.899,02	14.707.899,02	14.550.000,00	11.758.759,58	7.892.826,07	6.838.926,43	1.053.899,64
8	15.000,00		15.000,00	15.000,00	15.000,00			
	20.227.102	9.635.675,34	29.862.777,34	29.525.656,65	26.575.839,2	22.461.727,98	19.480.472,27	2.981.255,71

KAPITULUA	HASIERAKO AURREIKUSPENAK	ALDAKETAK	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK	AITORTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK	BILDUTAKOAK	KOBRATZEKE
3	6.863.000,00		6.863.000,00	7.090.117,88	6.954.541,08	135.576,80
4	7.170.949,00		7.170.949,00	7.170.949,00	7.170.949,00	
5	18.153,00		18.153,00	115.425,22	114.404,96	1.020,26
7	6.160.000,00	5.934.670,00	12.094.670,00	9.128.591,64	9.128.591,64	
8	15.000,00	3.701.005,34	3.716.005,34			
	20.227.102	9.635.675,34	29.862.777,34	23.505.083,74	23.368.486,68	136.597,06

### ➤ Itxitako ekitaldiak:

EKITALDIA	AITORTUTAKO OBLIGAZIOAK			EGINDAKO ORDAINKETAK	2009/12/31n AGINTZEKE DAUDEN OBLIGAZIOAK
	HASIERAKO SALDOA URTARRILAREN 1ean	OBLIGAZIOEN BALIOGABETZEA	GUZTIZKOAK		
2007	0,20	0,20	0,00		0,00
2008	319.692,50	2.025,89	317.666,81	317.666,81	0,00
GUZTIZKO OROKORRA	319.692,70	2.025,89	317.666,81	317.666,81	0,00

EKITALDIA	AITORTUTAKO ESKUBIDEAK			BILDUTAKOAK	2009/12/31n KOBRATZEKE DAUDEN ESKUBIDEAK
	HASIERAKO SALDOA URTARRILAREN 1ean	ESKUBIDEEN BALIOGABETZEA	GUZTIZKOAK		
2007	885.267,65	0,00	885.267,65	884.017,65	1.250,00
2008	5.385.810,17	0,00	5.385.810,17	5.375.895,07	9.915,10
GUZTIZKO OROKORRA	6.271.077,82	0,00	6.271.077,82	6.259.912,72	11.165,10

Informazio gehigarri hau dugu:

- Aurreko ekitaldietan aitortutako obligazioak baliogabetzeagatik izandako aurreko ekitaldietako sarrera eta mozkinak: 2.025,89 €
- KAIIn sarreraren zati nagusia zerbitzuak emateagatik kobratzen diren tasak izanik, ondaretik datozen sarrerekin, unibertsitateak ustiapenari emandako diru-laguntza batekin eta inbertsioak finantzatzeko unibertsitateko kapital-transferentziekin batera, ez dago desbiderapenik sarrerak lotuak dituzten gastuen finantzaketan.
- Altxortegiko Geldikin Likidoaz finantzatzeko gastuak: 3.605.727,88 €
- Altxortegiko Funts Likidoak: 8.020.199,51 €
- Aurrekontutik kanpoko eragiketengatik hartzekodunak: 351.314,81 €
- Kobrantza dudagarriko zordunen saldoa: 0,00 €

### **HAU ESKATZEN DA:**

**A.- 2009 ekitaldiari dagokion KAI Iren Aurrekontu-emaitzaren Egoera egitea eta aurkeztea.**

**B.- 2009 ekitaldiari dagokion KAI Iren Altxortegiko Geldikinaren Egoera egitea eta aurkeztea**

**C.- 2009 ekitaldirako KAI Iren Inbertsio Errealei dagokien Kreditu Geldikina kalkulatzeari buruzko informazioa.**

### **3. atala**

BUPen Kontabilitate Aplikatuko Ikerkuntza Institutuak (KAI) (BUPen aurrekontuan integratzen den aurrekontu propioa duen erakundea), erabaki du bere burua 3.000.000,00 €-ko aurrekontua duen liburutegi batez hornitzea 2010 ekitaldirako. KAIren egoitzan orain areto bat dagoen tokian funts bibliografikoak biltegitzeko eta aztertzeko sistema modernoak instalatzean datza obra.

Inbertsioa finantzatzeko, bi kapital-transferentzia dakartza KAIren diru-sarreraren aurrekontuak. Bata, 2.000.000,00 €-koa, BUPek berak ekarriko du. Bestea, 1.000.000,00 €-koa, Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) ekarriko du.

Urtarrilaren 10ean, KAIko zuzendariak erabaki du 22110.66700 zenbakidun aurrekontu-partidako kreditua, 3.000.000,00 €-koa, atxikitzea.

2010eko otsailaren 1ean, KAIko Administrazio Kontseiluak erabaki du 3.000.000,00 €-ko inbertsioari baimena ematea, eta baldintza-orriak argitararazi ditu egunkarietan.

2010eko maiatzaren 20an, KAIko Administrazio Kontseiluak erabaki du obrak Eraiki S.A. enpresari esleitzea, 2.700.000,00 €-an.

2010eko uztailaren 8an, zegokion txosten teknikoa aintzat hartuta, KAIko zuzendariak onetsi ditu lehen faseari dagozkion obra-ziurtagiriak, 2.000.000,00 €-ko balioa dutenak. Erabaki horretan bertan onetsi da ordainketa, eta uztailaren 14an gauzatu da banku-transferentzia bidez.

2010eko irailaren 15ean BFAren ebazpen baten berri jaso da, zeinaren arabera 1.000.000,00 €-ko kapital-dirulaguntza ematen baitio KAIri, Institutua liburutegi batez hornitzeko. 2010eko irailaren 30ean 1.000.000,00 €-ko transferentzia jaso da.

2010eko uztailaren 8an, zegokion txosten teknikoa aintzat hartuta, KAIko zuzendariak onetsi ditu bigarren eta azken faseari dagozkion obra-ziurtagiriak, 700.000 €-ko balioa dutenak. Erabaki horretan bertan agindu da ordaintzea.

2010eko urriaren 15ean liburutegia abian ipintzeko prest dagoela jo da, eta inauguratu egin da. 20 urteko bizitza erabilgarria aurreikusi zaio, eta amortizazio lineala hartu da irizpidetzat.

#### **Oharra:**

Ondare- eta aurrekontu-irekierako eragiketak dagoeneko kontabilizatuta daudela jo da.

Ez da aurrekontu- eta kontabilitate-itxierako eragiketarik eskatzen.

Eragiketa BEZetik salbuetsita dago.

### **HAU ESKATZEN DA:**

**2010 ekitaldiari dagozkion eragiketa guztiak kontabilizatzea.**

#### 4. atala

Erakunde publiko baten 01 urteko aurrekontuan bi ekitaldi ekonomikotan gauzatuko den proiektu bat egitea ageri da. 215.000 m.u.-ko kostu totala du inbertsio erreal horrek, eta haietatik 86.000 beste erakunde publiko batek egingo duen transferentziaz jasoko dira. Honela gauzatuko dira lanak:

<u>Urtea</u>	<u>Gastuak</u>	<u>Hari lotutako sarrerak</u>
01	85.000 m.u.	34.000 m.u.
02	130.000 m.u.	520.000 m.u.

##### 1. urtean:

Obra osoa esleitu da ekitaldian, baina 60.000 m.u.-ren obligazioak besterik ez da aitortu. Kapital-transferentziaz kobratu beharreko eskubideak, berriz, ekitaldirako aurrekontuan ageri den kopuru osoan aitortu dira.

##### 2. urtean:

130.000 m.u.-ren obligazioak aitortu dira, eta ekitaldirako aurrekontuan ageri diren kobratzeko eskubide guztiak.

##### 3. urtean:

Gainerako obligazioak aitortzen dira.

#### **HAU ESKATZEN DA:**

##### **Urte horietako bakoitzerako:**

- Kalkulatu finantzaketaren desbiderapenak
- Adierazi zer eragin duten eragiketa horiek Aurrekontu-emaitzan eta Altxortegiko Geldikinean.





**LAN-POLTSA: "KUDEAKETA-TEKNIKARIAK – EKONOMIA ETA ENPRESA-ZIENTZIETAN LIZENTZIATUAK"**

**BOLSA DE TRABAJO DE "TÉCNICOS DE GESTIÓN - LICENCIADOS EN CIENCIAS ECONÓMICAS Y EMPRESARIALES"**

<b>Galdera zb N ° pregunta</b>	<b>Erantzuna Respuesta</b>	<b>Galdera zb N ° pregunta</b>	<b>Erantzuna Respuesta</b>
1	B	26	C
2	B	27	C
3	D	28	C
4	B	29	C
5	B	30	D
6	D	31	A
7	D	32	A
8	A	33	C
9	B	34	C
10	C	35	B
11	B	36	A
12	C	37	C
13	D	38	C
14	B	39	A
15	B	40	B
16	A	41	A
17	B	42	B
18	B	43	D
19	B	44	B
20	B	45	B
21	D	46	A
22	A	47	B
23	D	48	A
24	D	49	D
25	C	50	B

**Erreserbako galderak / Preguntas Reserva**

<b>Galdera zb N ° pregunta</b>	<b>Erantzuna Respuesta</b>	<b>Galdera zb N ° pregunta</b>	<b>Erantzuna Respuesta</b>
51	D	56	D
52	D	57	A
53	A	58	D
54	D	59	C
55	B	60	D

**A EREDUA**



**1.- Lan-istripuak eragindako aldi baterako ezintasuneko sorospena:**

- a) Oinarri arautzailearen % 100 da
- b) Oinarri arautzailearen % 60 da, 4. egunetik hasita
- c) Oinarri arautzailearen % 75 da, 4. egunetik hasita
- d) Oinarri arautzailearen % 75 da, istripuaren hurrengo egunetik hasita

**2.- Zer kotizazio-aldi behar da kontribuzio mailako langabezia-prestaziorako eskubidea izateko?**

- a) 6 hilabete
- b) 10 hilabete
- c) 12 hilabete
- d) 18 hilabete

**3.- Zer egitura du UPV/EHUko gastuen aurrekontuak?**

- a) Organikoa, funtzionala eta ekonomikoa
- b) Organikoa eta funtzionala
- c) Ekonomikoa
- d) Egiturazkoa, funtzionala eta ekonomikoa

**4.- Berezitasun kualitatiboaren aurrekontu-printzipioari dagokionez, definizio hauetariko zein da ZUZENA?**

- a) Aurrekontu-kredituak aurrekontuen dokumentuan finkatutako helburuetarako esleitu behar dira zehazki.
- b) Printzipio horren helburua da gastu-muga ez gainditzea.
- c) Aurrekontuek diru-sarrera eta gastu publiko guztiak hartu behar dituzte, minoraziorik gabe.
- d) Gastu eta diru-sarrera publiko guztiak aurrekontu bakar batean bilduko dira.

**5.- Gastuaren sailkapen ekonomikoak, edozein Administrazioan, hau adierazten du:**

- a) "Nork gastatzen dituen" baliabideak
- b) "Zertarako" gastatzen diren baliabideak
- c) "Zertan" gastatzen diren baliabideak
- d) Gastuen aurrekontuan ez dago sailkapen ekonomikorik

**6.- Aurrekontu-loturei dagokienez, zein da baieztapen zuzena?**

- a) Gastu-muga aplikazio bakoitzean erabilgarri dagoen kredituari dagokio
- b) Gastu-muga kalkulatzeko, kontuan izan behar da aplikazio lotu guztien erabilgarria.
- c) Gastuen Aurrekontuko I. kapituluko aplikazioak ezin dira lotuta egon.
- d) Termino hori Diru-sarreraren Aurrekontuan baino ez da erabiltzen.

**7.- Gastu-egoeren munta osoa aldatu gabe kredituak lotura-maila desberdinen artean lekualdatzen dituen aurrekontu-aldaketa, zer terminoren definizioa da?**

- a) Kreditua txertatzea
- b) Kreditua sortzea
- c) Kreditua transferitzea
- d) Kreditua handitzea

**8.- Gastuen Aurrekontuaren zer eragiketatan eskatzen da hirugarren baten kobratzeko eskubidea egiaztatzen duen dokumentua?**

- a) Baimena
- b) Gaitasuna
- c) Obligazioa
- d) Ordainketa

**9.- Ekitaldi ekonomikoa hastean Aurrekontua indarrean sartu ez bada:**

- a) Aurreko ekitaldikoa automatikoki luzatutzat joko da, bere behin betiko kredituekin
- b) Aurreko ekitaldikoa automatikoki luzatutzat joko da, bere hasierako kredituekin
- c) Aurrekontuaren luzapena organo eskudunak onartu behar du.
- d) Ekitaldi horretarako Aurrekontuen Aurreproiektuan dauden zifrekin funtzionatuko da.

**10.- Klausula teknikoaren sortari dagokionez, egia da:**

- a) Kontratazio-organoak gastua baimendu baino lehen edo baimentzearekin batera onartuko dituela, eta lizitazioa baino lehen betiere.
- b) Kontratazio-organoak gastua baimendu ondoren onartuko dituela, eta lizitazioa baino lehen betiere.
- c) Kontratazio-organoak gastua baimendu ondoren eta lizitatu ondoren onartuko dituela.
- d) Bat ere ez da zuzena

**11.- "Kontratua betetzen hasteko epeak ez du izan behar hamabost egun baliodunetik gorakoa, formalizatzen denetik". Testu hori 2011ko azaroaren 14ko Legegintzako Errege Dekretuaren 112.2.c) artikuluan jasota dago, eta era honetako izapidetzea duten kontratazio-espedienteei dagokie:**

- a) Ohikoa
- b) Ohiz kanpokoa
- c) Presakoa
- d) Larrialdikoa

**12.- UPV/EHUko estatutuak onartzen dituen 2011ko otsailaren 15eko 17/2011 Dekretuaren arabera, UPV/EHUren aurrekontua:**

- a) Gizarte Kontseiluak behin betiko onartzen ditu, Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak aurrekontu-proiektua alde aurretik onartu ondoren.
- b) Eusko Jaurlaritzak behin betiko onartzen ditu, Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak aurrekontu-proiektua alde aurretik onartu ondoren.
- c) Eusko Jaurlaritzak behin betiko onartzen ditu, Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak eta Gizarte Kontseiluak aurrekontu-proiektua alde aurretik onartu ondoren.
- d) Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak behin betiko onartzen ditu, Gizarte Kontseiluak aurrekontu-proiektua alde aurretik onartu ondoren.

**13.- UPV/EHUko estatutuak onartzen dituen 2011ko otsailaren 15eko 17/2011 Dekretuaren arabera, Unibertsitatearen beraren fondoekin finantzatutako ikerketa-proiektu bati dagozkion kreditu erabili gabeek, proiektua 2010eko urtarrilaren 1ean hasi bazen eta 2013ko azaroaren 13an amaitzen bada:**

- a) Gerakin espezifikoaren izaera galduko dute amaitu ondorengo egunean.
- b) Gerakin espezifikoaren izaera galduko dute 2013ko ekitaldiaren amaieran.
- c) Gerakin espezifikoaren izaera galduko dute 2014ko ekitaldiaren amaieran.
- d) Ez dute inoiz galduko gerakin espezifikoaren izaera, zeren eta dirua inongo erakunderi itzuli behar ez zaionez, ikertzailearen esku gelditzen baitira ikerketa sustatzeko.

**14.- UPV/EHUko estatutuak onartzen dituen 2011ko otsailaren 15eko 17/2011 Dekretuaren arabera, urteko txosten ekonomikoa:**

- a) Errektoreak egingo du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio, Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak eta Gizarte Kontseiluak hurrengo urteko lehen hiruhilekoaren aurretik onartu ondoren.
- b) Errektoreak egingo du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio, Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak eta Gizarte Kontseiluak hurrengo urteko lehen seihilekoaren aurretik onartu ondoren.
- c) Gerenteak egingo du, eta Unibertsitateko Gobernu Kontseiluari eta Gizarte Kontseiluari aurkeztuko die, onespena emateko, hurrengo urteko lehen seihilekoaren aurretik.
- d) Gerenteak egingo du, eta Unibertsitateko Gobernu Kontseiluari eta Gizarte Kontseiluari aurkeztuko die, onespena emateko, hurrengo urteko lehen hiruhilekoaren aurretik.

**15.- Esaldi hauetako zein EZ da zuzena? Urteko kontuen auditoria-txostenak hau izan behar du:**

- a) Lana egiteko agindua eman zuten pertsona fisiko edo juridikoen identifikazioa.
- b) Iritzi bat, adieraziz ea ekitaldi berari dagozkion kontuak kudeaketa-txostenarekin bat datozen ala ez, aipatutako kudeaketa-txosten hori urteko kontuekin batera aurkezten denean.
- c) Iritzi tekniko bat, honelakoa izan daitekeena: aldekoa, mugatua, kontrakoa, ukatua.
- d) Data bat, adieraziko duena noiz amaitu dituen auditoreak egin beharreko auditoria-prozedurak urteko kontuei buruzko iritzi bat emateko.

**16.- Auditoria gauzatzean, adieraz ezazu baieztapen hauetatik zein EZ den zuzena laneko paperei dagokienez.**

- a) Ezinbestekoa da laneko paperak erreferentzia-sistema egoki batez hornitzea, erabiltzaileak aurkitu ahal izan dezan erabilitako informazioaren jatorria.
- b) Auditorearenak dira, eta gutxienez sei urtez kontserbatu eta gorde behar dira, dagokion auditoria-txostenaren jaulkipen-datatik zenbatzen hasita.
- c) Haien helburua da egindako lanaren frogagiria izatea, auditorearen iritzia bermatzeko.
- d) Haien helburua da auditoria planifikatzen eta gauzatzen laguntzea.

**17.- Barneko kontrol-sistemaren azterketari eta ebaluazioari dagokionez, adieraz ezazu baieztapen hauetatik zein den zuzena**

- a) Betetze-probak ez dira beharrezkoak deskribatutako prozeduretan fidatu behar bada.
- b) Ez da beharrezkoa betetze-probak egitea, auditoreak beharrezkotzat jotzen duenean izan ezik.
- c) Urteko kontuen osagaiei buruz egin beharreko proba substantiboen hedadura, bai eta haien izaera eta aplikatzeko unea ere, hainbat handiagoa izango da zenbat eta handiagoa izan barne-kontrolaren betetze-probetan lortutako konfiantza.
- d) Barneko kontrol-sistema ezartzea eta mantentzea auditoria-batzordearen erantzukizuna da, eta auditorearekin zuzenean lankidetzan gauzatzekoa da.

**18.- Kontuen Auzitegiari esleitutako eskumenen kalterik gabe, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak hauetara hedatzen du bere kontrola:**

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide pribatuko erakunde publikoak.
- b) Bilboko Udalaren ondasun publikoak erabiltzen dituen edozein erakunde.
- c) Gipuzkoako Diputazioak Amerikako enpresa bati emandako salbuespen fiskalaren erabilera eta helmuga zuzena.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.



**19.- 1/2001 Legegintza Dekretuaren arabera, zeina Euskadiko aurrekontu-araubideari buruzkoa baita, aurrekontu-gaietan eskumena duen Sailak txertatu egin ditzake aurreko ekitaldiko aurrekontuetako gastu-egoeretan sartutako ordainketa-kredituak, baldin eta dagoeneko aitortutako obligazioak bete beharrak eragiten ez badie eta baldin eta kasu hauetako bati badagozkio:**

- a) azaroaren lehena baino lehen hartutako konpromisoak babesten dituzten gastuei dagozkien kredituak, gastu horiek, arrazoi egiaztatuengatik, gauzatu ezin izan badira.
- b) aurreko urteko irailaren lehenetik emandako kreditu gehigarriak.
- c) organo eskudunak aurreko urteko azaroaren lehena baino lehen transferentzia baimendua izan duten kredituak.
- d) erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

**20.- 1/2001 Legegintza Dekretuaren arabera, zeina Euskadiko aurrekontu-araubideari buruzkoa baita, Administrazioaren aurrekontu-ekitaldiko likidazio-kontuko diru-sarreraren egoera erakusten duten taulak honako hauek eduki behar ditu:**

- a) aitortutako eta likidatutako eskubideak.
- b) ekitaldian izandako diru-sarrerak.
- c) aurreikusitako diru-sarrerak.
- d) aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**21.- 1/2001 Legegintza Dekretuaren arabera, zeina Euskadiko aurrekontu-araubideari buruzkoa baita, beste ordainketa-kreditu batzuen eskasiei erantzuteko edo zuzkidurarik ez duten behar berriei aurre egiteko, edota zabalgarritzat jotako kredituak finantzatzeko ordainketa-kreditu orokorrari dagokionez, adieraz ezazu zein den erantzun zuzena.**

- a) ez dago aukerarik kreditu orokor horretarako.
- b) ezin da kreditu orokorraren kontrako gasturik baimendu.
- c) haren hasierako zuzkidurak ezin izango du gainditu ordainketa-kredituen guztirako zenbatekoaren % 3.
- d) haren hasierako zuzkidurak nahiz gerora egin daitezkeen gehikuntzek gainditu ahal izango dute, urte-bukaeran izan ezik, ordainketa-kredituen guztirako zenbatekoaren % 5 ekitaldiko une bakoitzean.

**22.- BEZaren subjektu pasiboaren inbertsioari lotutako eragiketa batean, nor dago behartuta ateratzen den kuota zuzenean Ogasun Publikoan sartzeraz?**

- a) Enpresaburua edo eragiketaren hartzailea den erakunde hartzekoduna.
- b) Enpresaburua edo erakunde zordun saltzailea.
- c) % 50ean alderdietako bakoitza.
- d) Aurreko hiruretako bat ere ez da zuzena.

**23.- Aurrekontu-kontabilitatean, nomina-aurrerakin bat egiten dugunean, zer egiten ari gara?**

- a) Ekitaldi itxiko aurrekontu-eragiketa bat.
- b) Kreditu bat 1 kapitulura transferitzea.
- c) Aurrekontuz kanpoko eragiketa bat.
- d) Finantzaketa lotua duen gastu bat.

**24.- Zer gertatzen da subjektu pasiboa, bere enpresa-jardueran edo jarduera profesionalean, kengari-eskubidea sortzen duten ondasunak eta zerbitzu-prestazioak eskubide hori sortzen ez dutenekin batera ematen baditu?**

- a) Jasandako BEZaren % 50 besterik ez dela kengarria.
- b) BEZaren legean araututako hainbanaketa-erregela aplikatu beharko dugula.
- c) Ezinezkoa da hori gertatzea, Sozietateen Araudian definitzen den bezala.
- d) Jasandako BEZa ez dela kengarria izango.

**25.- Aurrekontu-ekitaldiaren azken egunean obligazio aitortuak betetzeari lotuak ez dauden behin betiko kredituen saldoak aipatzean, zertaz hitz egiten ari gara?**

- a) Diruzaintzaren gerakinaz.
- b) Kreditu-gerakinaz.
- c) Aurrekontu-emaitzaz.
- d) Finantzaketa lotuko kredituez.

**26.- Auditoria egin zaion erakundearen barneko kontrol-sistemak aurreikusi zen bezala funtzionatzen duen egiaztatzeko egiten diren betetze-probei dagokienez,**

- a) Aurretiko aldiaren egindako betetze-probak, nahitaez, ekitaldia ixteko datara arte zabaldu behar dira.
- b) Oinarri estatistikoaren edo oinarri objektiboaren gainean egiten dira.
- c) Proben lagina hautatzeko erabilitako irizpidea laneko paperetan adierazita utzi behar da.
- d) Berrikusten ari den aldiaren gauzatu ez diren transakzioei aplikatu dakizkieke.

**27.- EBko beste herrialde batzuetatik inportatzea edo ondasunak erostea, "Erkidegoz barneko eskuratze" izenekoak :**

- a) BEZetik salbuetsita daude, beste edozein inportazio bezala.
- b) BEZari lotuak daude, baina "autolikidazio"-mekanismo batekin, zeinaren bidez jasandako BEZ handiagoa eta jasanarazitako BEZ gisa kontabilizatzen baita eragiketa.
- c) Erkidegoz barneko BEZa dagokie; beraz, salgaien jatorrizko herrialdean aplikatuko litzaiekeen BEZa aplikatuko zaie.
- d) Erosketaren fakturan jatorrizko herrialdearen BEZa agertzen bada, hura aplikatuko da; agertzen ez bada, eragiketa BEZetik salbuetsita egongo da.

**28.- Finantzaketa lotuko gastuei dagokienez, zein da erantzun ZUZENA?**

- a) Ekitaldiaren finantzaketa-desbiderapen positibo horiek Diruzaintzaren gerakinari baino ez diote eragiten doiketa.
- b) Edozein finantzaketa-desbiderapenek ekitaldi horretarako aurrekontuetako diru-sarreraren eta gastuen arteko desfase bat adierazten du.
- c) Ekitaldiko finantzaketa-desbiderapen negatiboek doiketa positiboa eragiten dute Diruzaintzaren gerakinean.
- d) Finantzaketa-desbiderapen positibo metatuak Diruzaintzaren gerakinaren parte dira.

**29.- \_\_\_\_\_ak, administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari-organoeekin indarreko legerian adierazitako moduan aldez aurretik negoziatu ondoren, eta 2004ko otsailaren 25eko Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legearen 9. Xedapen Gehigarriaren esparruan, administrazio eta zerbitzuetako langileen ordainsarien araubidea ezarriko du.**

- a) Errektoreak
- b) UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak
- c) Eusko Legebiltzarrak
- d) Gerenteak

**30.- UPV/EHUko Gizarte Kontseilua:**

- a) Gizarteak UPV/EHU parte hartzeko organoa da.
- b) Unibertsitateko kideen ordezkari-organoa goren da.
- c) Bere arautegian neurriak zehaztuko ditu emakumezkoen eta gizonezkoen kopuruak orekatuak izan daitezen.
- d) Aurreko guztiak faltsuak dira.

**31.- Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Lege Organikoak hau bermatzen du:**

- a) Unibertsitateen autonomia-printzipioa eta autonomia-eskubidea, baina katedra, ikasketa eta ikerketako askatasunen berme bezala baino ez.
- b) Unibertsitateen autonomia-printzipioa eta autonomia-eskubidea, katedra- eta ikasketa-askatasunen berme bezala, baina ez ikerketako askatasun eta kudeaketarako autonomia bezala.
- c) Unibertsitateen autonomia-printzipioa eta autonomia-eskubidea, batetik, katedra, ikasketa eta ikerketako askatasunen berme bezala, eta bestetik, kudeaketarako autonomia bezala.
- d) Haietako bat ere ez.

**32.- Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Lege Organikoak dio irakasle kontratatuen portzentaje bat lehiaketa-prozeduratik kanpo kontratatu ahal izango dela, Unibertsitaterako oso beharrezkoak diren pertsona batzuk sartzeko.**

- a) Salbuespeneko prozedura da, eta kontratatutako irakasle guztien % 5era mugatzen da.
- b) Salbuespeneko prozedura da, eta kontratatutako irakasle guztien % 15era mugatzen da.
- c) Salbuespeneko prozedura da, eta kontratatutako irakasle guztien % 20ra mugatzen da.
- d) Irakasleak ezin izango dira inoiz kontratatu lehiaketa publikoaz bestelako prozedura baten bidez.

**33.- Kontabilitate publikoan, kontabilitate-printzipio publikoen arteko gatazkarik gertatzen bada:**

- a) Kontabilitate-printzipioen hierarkiaren printzipioa nagusituko da beti gainerako guztien gainetik.
- b) Gatazkarik gertatzen bada, kanpoko fiskalizazio-organoei kontsulta egin behar zaie, eta haien erabakia loteslea izango da.
- c) Urteko kontuak ondarearen, finantza-egoeraren eta erakundearen ondare- eta ekonomia-emaitzaren irudi leiala izatea hobekien bermatzen duen printzipioa nagusituko da.
- d) Guztiak kontabilitate-printzipio publikoak direnez, berdin dio zein aplikatu. Nahitaezkoa den bakarra irizpidea urtero ez aldatzea da.

**34.- Aplikatu beharreko aurrekontu-araudian jasotako aurrekontu-arloko kontabilitate-printzipioak hauek dira:**

- a) Aurrekontu-egozpenaren kontabilitate-printzipioa eta Desafektazioarena.
- b) Sortzapenaren eta Zuhurtziaren kontabilitate-printzipioa
- c) Sortzapenaren eta Kudeaketa jarraituaren printzipioa.
- d) Haietako bat ere ez.

**35.- Urteko kontuak osatzen dituzten dokumentuak hauek dira: balantzea, ondare- eta ekonomia-emaitzaren kontua, ondare garbian izandako aldaketan egoera, diru-fluxuen egoera, aurrekontuaren likidazioaren egoera eta**

- a) Aurrekontuz kanpoko zordun eta hartzekodunen xehetasuna.
- b) Txostena.
- c) Eragiketen egunerokoa.
- d) Kontabilitate-kontuen liburu nagusiak.

**36.- Urteko kontuetan emandako informazioak fidagarritasunaren betebeharra bete behar du. Horrek esan nahi du:**

- a) Informazioak osoa eta objektiboa izan behar duela.
- b) Eragiketen hondo ekonomikoa haien forma juridikoaren gainetik dagoela.
- c) Zuhurtasuna behar dela ziurgabetasun-egoeran egin beharreko zenbatespenetan eta balorazioetan.
- d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

**37.- Itxi ondorengo egintzak honen parte dira:**

- a) Txostena.
- b) Diru-sarrera eta gastu korronteen egoera.
- c) Aurrekontu arrunta.
- d) Haietako bat ere ez.

**38.- Diruzaintzako barne-mugimenduak talde honetako finantza-kontuetan kontabilizatzen dira:**

- a) 1. taldea.
- b) 4. taldea.
- c) 5. taldea.
- d) Aurrekoetako bat ere ez.

**39.- Eskubide hauetako bat EZ dago jasota Espainiako 1978ko Konstituzioaren I. Tituluko II. Kapituluko 1. ATALEAN ("Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak").**

- a) Pertsona guztiek dute askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Inori ezin zaio kendu askatasuna, ez bada artikuluko honek dioena betez eta legean ageri diren kasuetan eta moduan.
- b) Katedra-askatasunerako eskubidea.
- c) Literatura, artea, zientzia eta teknika ekoizteko eta sortzeko eskubidea.
- d) Jabetza pribaturako eta jaraunspenerako eskubidea.

**40.- Erantzun hauetako bat EZ da zuzena:**

**Espainiako 1978ko Konstituzioak, bere 148. artikuluan, xedatzen du gai hauetan hartu ahal izango dituztela eskumenak beren gain autonomia-erkidegoek:**

- a) Beren autogobernu-erakundearen antolamendua.
- b) Autonomia-erkidegoaren kultura, ikerketa eta, hala badagokio, hizkuntzaren irakaskuntza sustatzea.
- c) Jabetza intelektualari eta industrialari buruzko legeria.
- d) Lurralde-antolamendua, hirigintza eta etxebizitza.

**41.- Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren Lehen Tituluko, gai hauetako zein EZ da Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eskusiboa?**

- a) Estatuaren izenean ez dauden artxibategi, liburutegi eta museoak.
- b) Irakaskuntza bere luze-zabalean, maila eta gradu guztietan, molde eta espezialitate orotan.
- c) Kredituaren antolamendua, bankuak eta aseguruak.
- d) Farmazia-antolamendua.

**42.- Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 45. artikulua araberan,**

- a) Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak herri-zorra jaulki ahal izango du inbertsio-gastuak finantzatzeko.
- b) Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak ezin izango du herri-zorra jaulki inbertsio-gastuak finantzatzeko.
- c) Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak zor pribatua jaulki ahal izango du inbertsio-gastuak finantzatzeko.
- d) Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak epe laburreko herri-zorra jaulki ahal izango du inbertsio-gastuak finantzatzeko.

**43.- 30/1992 (LRJAPPAC) Legearen arabera, eskumenak eskuordetzan emateari buruz:**

- a) Emateak ez du aldatzen organo eskuordetza-emailearen eskumena, eta, balio izateko, ez du argitaratu beharrik.
- b) Estatuko Aldizkari Ofizialean, autonomia-erkidegokoan edo probintziakoan argitaratu behar da; non argitaratu jakiteko, kontuan izango da zein administratibotakoa den organo eskuordetza-emailea eta eskumena zein lurralde-eremutan duen.
- c) Administrazioaren ebazpenak eskuordetza baliatuz ematen badira, espresuki adierazi behar da ebazpen horiek eskuordetza baliatuz eman direla, eta organo eskuordetza-emaileak emandakotzat joko dira.
- d) Norberak eskuordetza baliatuz erabiltzen dituen eskumenak beti eman dakizkioke eskuordetza norbaiti, argitaratuz gero.

**44.- 30/1992 (LRJAPPAC) Legearen 35. artikulua araberan, eskubide hauetako zein EZ da herritarren eskubidetzat jotzen herri-administrazioekiko harremanetarako?**

- a) Norberaren autonomia-erkidegoko lurraldean ofizialak diren hizkuntzak erabiltzeko eskubidea.
- b) Prozedurak izapidetzeko ardura duten pertsonak identifikatzeko eskubidea.
- c) Aurkeztutako agirien kopia eskuratzeko eskubidea.
- d) Prozeduraren edozein alditan alegazioak aurkezteko eskubidea.

**45.- Forma hauetako zeinengatik esaten da prozedura EZ dela Administrazioaren kabuz hasia? (30/1992 Legea [LRJAPPAC])**

- a) Interesdunaren eskaeraren ondorioz.
- b) Goragoko baten aginduz.
- c) Salaketa baten ondorioz.
- d) Beste organo batzuen eskari arrazoituei erantzunez.

**46.- Egintza hauetako zeinen aurka aurkez daiteke berraztertze errekurtso bat?**

- a) Administrazio-bidea amaitzen duen egintza bat.
- b) Administrazio-bidea amaitzen ez duen egintza bat.
- c) Deuseztat jotzeko arrazoirik ez duen egintza bat.
- d) Deuseztagarritzat jotzeko arrazoirik ez duen egintza bat.

**47.- Zein da gorako errekurtsoa jartzeko epea egintza adierazi baten aurkakoa denean?**

- a) Hamar egun
- b) Hogeita egun
- c) Hilabetea
- d) Hogeita hamar egun

**48.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legeak (2007ko apirilaren 12ko 7/2007 Legea), lanbide-sustapeneko modalitateei dagokienez, EZ du aintzat hartzen:**

- a) Karrera horizontala
- b) Karrera bertikala
- c) Barne-sustapen bertikala
- d) Kanpo-sustapen horizontala



**49.- Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legearen arabera, hutsegite oso larria izango da (83. art.):**

- a) Agintariek zerbitzuari buruz emandako agindu edo oharrak ez betetzea.
- b) Bateriaezintasunei buruzko arauak ez betetzea.
- c) Zerbitzuetako lokal, material edo dokumentuetan, zabarkeriaz edo asmo txarrez, kalte handiak egitea.
- d) Lantegietan iskanbilaren bat sortu edo parte hartzea.

**50.- Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuen arabera (191. artikulua), Administrazio eta zerbitzuetako langileen buru izatea, errektoreak ahalmen hori eskuordetzen dionean, nori dagokio?**

- a) Idazkari nagusiari.
- b) Gerenteari.
- c) Kasuan kasuko campuseko errektoreordeari.
- d) Langileen errektoreordeari.

## ERRESERBAKO GALDERAK

### 51.- Adieraz ezazu baieztapen hauetako zein **EZ DEN ZUZENA**:

- a) Altxortegiko barne-mugimenduak ez dira aurrekontu-eragiketak.
- b) Gordailuak (abalak) egiteak aurrekontuz kanpoko zordun bat sortzen du.
- c) Jasandako BEZ kengarria duen faktura bat kontabilizatzeak aurrekontuz kanpoko zordun bat sortzen du.
- d) Aurreko erantzun guztiak faltsuak dira.

### 52.- Amatasunagatiko prestazio ekonomikoa, erditze anizkoitzaren kasuan, hau da:

- a) Aurreko hileko ordainsarien % 100en baliokidea den sorospen bat eta sorospen berezi bat seme-alaba bakoitzeko, lehenengoagatik dagokionaren berdina, bigarrenetik hasita, erditzearen ondorengo 6 asteetan.
- b) Oinarri arautzailearen % 100en baliokidea den sorospen bat eta sorospen berezi bat seme-alaba bakoitzeko, lehenengoagatik dagokionaren berdina, bigarrenetik hasita, erditzearen ondorengo 6 asteetan.
- c) Aurreko hileko ordainsarien % 100en baliokidea den sorospen bat eta sorospen berezi bat seme-alaba bakoitzeko, lehenengoagatik dagokionaren berdina, bigarrenetik hasita, erditzearen ondorengo 8 asteetan.
- d) Oinarri arautzailearen % 100en baliokidea den sorospen bat eta sorospen berezi bat seme-alaba bakoitzeko, lehenengoagatik dagokionaren berdina, bigarrenetik hasita, erditzearen ondorengo 8 asteetan.

### 53.- \_\_\_\_\_ da egintza bat, zeinaren bidez Administrazioaren aldeko eskubide ekonomiko bat formalizatzen baita eta diru kopuru bat ordaindu behar duten pertsona fisiko edo juridikoak haren zordun bihurtzen baitira.

- a) Eskubide-aitorpena
- b) Obligazio-aitorpena
- c) Diru-sarrera
- d) Kobrantza

**54.- Kontratazio-organoek, kontratua gauzatzeari dagokionez, baldintza bereziak ezarri ahal izango dituzte, baldin eta bateragarriak badira Europako Erkidegoko zuzenbidearekin eta adierazten badira lizitazio-iragarkian eta baldintza-agirian edo kontratuan. Gauzatzeko baldintza horiek, batez ere, arlo hauetakoak izan daitezke:**

- a) Kulturalak eta ingurumenekoak
- b) Ekonomikoak eta kulturalak
- c) Ingurumenekoak eta sozialak
- d) Sozialak eta kulturalak

**55.- Herri Kontuen Euskal Epaitegia**

- a) Kontu-hartzailearen eta fiskalizatzailearen funtzioak ditu.
- b) Euskal Sektore Publikoa osatzen duten erakundeen finantza- eta ekonomia-arloko jardueraren eraginkortasuna eta eragimena aztertzen ditu.
- c) Eusko Legebiltzarreko osoko bilkurak hautatzen ditu haren kideak, gehiengo soilaren aldeko botoarekin.
- d) haren kideek goi-mailako tituludunak izan behar dute, eta gaitasun aitortua izan behar dute epaitegiaren funtzioen arloei dagokienez, 7 urteko lanbide-esperientziarekin bermatua betiere.

**56.- Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorren egituraren arabera, kontabilitate publikoaren printzipioak parte honetan jasota daude:**

- a) Lehen parte.
- b) Bigarren parte.
- c) Hirugarren parte.
- d) Laugarren parte.

**57.- Aurrekontuz kanpoko altxortegi-eragiketak dira ekitaldian zehar honako hauek sortzea edo azkentzea eragin dutenak:**

- a) Altxortegi-aurrekontuari egoztekoak ez diren zordunak eta hartzekodunak.
- b) Ordainketak adierazteko partidak eta behin betiko aplikatzeko dauden kobrantzak, aurrekontuzko eragiketengatikoak izan zein aurrekontuzkoak ez direnengatikoak izan.
- c) Aurreko biak.
- d) Haietako bat ere ez.

**58.- Espainiako 1978ko Konstituzioaren 103. artikulua arabera, printzipio hauetako zein EZ da Administrazio Publikoaren jardueraren gidari?**

- a) Eraginkortasun-printzipioa.
- b) Hierarkia-printzipioa.
- c) Deszentralizazio-printzipioa.
- d) Kontzentrazio-printzipioa.

**59.- Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuen arabera (54. artikulua), administrazio eta zerbitzuetako langileei eskubide hauetako zein EZ dagokie?**

- a) Promoziorako bidea emango duen etengabeko prestakuntza profesionala jasotzeko eta karrera profesionala aurrera eramateko eskubidea.
- b) Kalitate- edo hobekuntza-prozesuetan parte hartzeko eskubidea.
- c) Katedra-askatasunarekin eta ikertzeko askatasunarekin aritzeko eskubidea, ideia eta sineste zientifikoak askatasunez adierazita.
- d) Askatasunez sindikatze eskubidea, eta negoziazio kolektiboa eta greba askatasunez egitekoa.

**60.- Diru-fluxuen egoera-orria egitean:**

- a) Diru-fluxuen egoera-orriaren ordainketak garbian erakutsiko dira itzuli direlako egindako kobrantzen gainean, horiek ekitaldi berean edo beste ekitaldi batean gertatzen badira.
- b) Diru-fluxuen egoera-orriaren ordainketak garbian erakutsiko dira itzuli direlako egindako kobrantzen gainean, horiek ekitaldi berean gertatzen badira.
- c) Diru-fluxuen egoera-orriaren ordainketak ez dira inoiz garbian erakutsiko itzuli direlako egindako kobrantzen gainean, horiek ekitaldi berean gertatzen badira.
- d) Ordainketak ez dira kontuan hartzen diru-fluxuen egoera-orria egitean.

# **1. KASU PRAKTIKOA**



2011ko urriaren 15ean, "UJK" unibertsitate publikoak 2012ko aurrekontu-aurreproiektua aurkeztu zion Gobernu Kontseiluari. Horretarako, datu hauek zituen:

<b>GASTUAK</b>	<b>Zenbatekoa</b>
Fotokopiagailuen alokairua	5.000
Mailegu-amortizazioa	200.000
Komunikazioak (posta eta telefono bidezkoak)	100.000
Eraikin berri bat eraikitzea (1. urtea)	5.000.000
Kuota patronala	15.000.000
Ekipo informatikoak	4.000.000
Bibliografia-funtsak	2.500.000
Informatikako gai suntsikorrak	50.000
Zergak	30.000
Mailegu-interesak	65.000
Garbiketa	2.000.000
Gai suntsikorrak (bulego-materiala, didaktikoa eta laborategikoa)	5.000.000
Altzariak	2.000.000
Aseguru-primak	50.000
Eraikinak konpontzea, mantentzea eta kontserbatzea	500.000
Ordainsariak	55.000.000
Informatika-zerbitzuak	1.000.000
Ikasleentzako diru-laguntzak (bekak)	2.000.000
Hornigaiak (ura, energia elektrikoa eta gas naturala)	4.000.000
	<b>98.500.000</b>

<b>DIRU-SARRERAK</b>	<b>Zenbatekoa</b>
Tasa akademikoak	6.000.000
Autonomia Erkidegoaren ekarpen orokorra	74.500.000
Autonomia Erkidegoaren kapital-ekarpena	6.000.000
Ikerketarako diru-laguntzak	10.000.000
Mailegua	2.000.000
	<b>98.500.000</b>

Unibertsitate honek hiru programa funtzionaletan sailkatzen ditu bere gastuak, honela banatuta:

**Funtzionalak**

**Zerbitzu orokorrak:** 1. kapitulutik, % 20  
2. eta 6. kapituluetakoko gastu guztietatik, % 50  
4. kapitulutik, % 0  
Gainerako kapituluetatik, % 100

**Irakaskuntza:** 1. kapitulutik, % 60  
2. eta 6. kapituluetatik, % 30  
4. kapitulutik, % 80

**Ikerkuntza:** 1. kapitulutik, % 20  
2. eta 6. kapituluetatik, % 20  
4. kapitulutik, % 20

1. atala

Egin ezazu unibertsitate honetako aurrekontu-aurreproiektua kapituluaren mailan, **gastuen** sailkapen funtzional eta ekonomikoaren eta **diru-sarreraren** sailkapen ekonomikoaren arabera.



2012ko ekitaldian zehar, aldaketa hauek gertatu dira aurrekontuan:

- Apirilean, 2011ko aurrekontuaren likidazioa onartu da, eta erabaki da Altxortegiko gerakinaren parte bat honela banatzea:
  - o 1.000.000 euro, 2011ko ekitaldiko "Ikerkuntza" funtzionaleko I. kapituluan gauzatu gabeko kredituak finantzatzeko,
  - o 500.000 euro, "Irakaskuntza" funtzionaleko ikasleentzako diru-laguntzen zuzkidura handitzeko.
- Uztailean, "Zerbitzu orokorrak" funtzionalaren arduradunak pentsatu du komeni dela 6. kapituluko zuzkidura 50.000 euro handitzea eta 2.ekoa murriztea kopuru bera.
- Abuztuan, autonomia-erkidegoko Gobernuak langile publikoen aparteko soldata ezabatzea erabaki du. Akordio horrek unibertsitate honetako langileei eragiten die, eta Gastuen Aurrekontuan dagokion kapituluan 5.000.000 euro aurreztea dakar berekin. Autonomia-erkidegoko Gobernuak, halaber, diru-laguntza orokorretik kopuru bera kentzea erabaki du.
- Urrian, Europar Erkidegoaren ingelesezko irakaskuntza sustatzeko ohiz kanpoko deialdi bat ebatzi da. Ebazpenak dio **UJK**-k 1.000.000 euro jasoko dituela 2012ko ekitaldian irakasle berriak kontratatuzko, 2012/2013 ikasturtean ingelesez irakats dezaten. Ikasturtea amaitutakoan, gastu horiek justifikatu egin behar dira. 2012ko aurrekontua egin zenean, ez zegoen aurreikusita deialdi horretan parte hartzea.

## 2. atala

a) Egin ezazu gastuen txosten ekonomiko bat, kapituluka eta funtzionala, jasoko dituen hasierako aurrekontuaren informazioa, lehenago adierazitako aldaketa guztiak eta behin betiko aurrekontua.

b) Zenbatekoak dira diru-sarreraren behin betiko aurreikuspenak? Arrazoitu erantzuna.

"UJK" unibertsitateak gastu hauek izan ditu:

<b>GASTUAK</b>	<b>Ziurtatutako obrak / Emandako zerbitzuak / Hornitutako gaiak</b>	<b>Faktura ordainduak</b>
Fotokopiagailuen alokairua	5.000	5.000
Mailegu-amortizazioa	200.000	200.000
Komunikazioak (posta eta telefono bidezkoak)	105.000	105.000
Eraikin berri bat eraikitzea (1. urtea)	4.000.000	2.500.000
Kuota patronala	14.950.000	13.500.000
Ekipo informatikoak	3.000.000	2.900.000
Bibliografia-funtsak	2.500.000	2.500.000
Informatikako gai suntsikorrak	40.000	40.000
Zergak	30.000	30.000
Mailegu-interesak	65.000	65.000
Garbiketa	2.100.000	2.000.000
Gai suntsikorrak (bulego-materiala, didaktikoa eta laborategikoa)	4.900.000	4.500.000
Altzariak	1.900.000	1.500.000
Aseguru-primak	50.000	50.000
Eraikinak konpontzea, mantentzea eta kontserbatzea	450.000	450.000
Ordainsariak	50.000.000	50.000.000
Informatika-zerbitzuak	1.000.000	1.000.000
Ikasleentzako diru-laguntzak (bekak)	2.500.000	2.500.000
Hornigaiak (ura, energia elektrikoa eta gas naturala)	4.200.000	3.850.000
<b>Guztira</b>	<b>91.995.000</b>	<b>87.695.000</b>

Eraikin berria eraikitzea ekainaren 6an esleitu zen 4.980.000 euroan.

Kontratazio Zerbitzuak ekitaldiko azken hiruhilekoan espediente bat ireki zuen 800.000 euroko ekipo informatikoak erosteko. Eskaintzak 2013ko urtarrilaren 7an irekiko dira.

Zerbitzu guztiak, ziurtatutako obra guztiak eta hornitutako gai guztiak 2012ko abenduaren 31 baino lehen fakturatu dira.

2011ko ekitalditik txertatutako kreditua % 100ean gauzatu da.

Ingelesez irakasten duten irakasleen gastua 250.000 euro da. Gastu hori Europar Erkidegoaren diru-laguntzarekin finantzatzen da.

### 3. Atala

a) Egin ezazu gastuen txosten ekonomiko bat, **kapituluka**, 2012ko abenduaren 31ko datakoa, jasoko dituen behin betiko aurrekontua eta aurrekontu-fase guztiak (Ez hartu kontuan sailkapen funtzionala).

Abenduaren 31 baino lehen jasotako faktura guztiak erregistratu behar dira aurrekontuan? Arrazoitu erantzuna.

"UJK" unibertsitateak **diru-sarrera** hauek izan ditu:

- Ikasleen matrikulak hasierako aurreikuspenak baino handiagoak izan dira, eta 6.200.000 eurora iritsi dira. 150.000 euro kobratzeko daude.
- Autonomia-erkidegoaren ekarpenak oso-osorik kobratu dira.
- Europar Erkidegoaren 1.000.000 euroko diru-laguntza 2012ko abenduaren 15ean kobratu zen.
- Eskatutako mailegua 2012ko ekainaren 1ean kobratu zen.
- Ikerkuntzarako diru-laguntzak 8.000.000 euro dira, eta haietatik 6.500.000 euro kobratu dira.
- "UJK"ren eraikin berria eraikitzen ari den enpresak, fidantza moduan, 249.000 euro ordaindu zituen.

#### 4. atala

a) Egin ezazu diru-sarreraren txosten ekonomiko bat, kapituluka, 2012ko abenduaren 31ko datakoa, jasoko dituen behin betiko aurreikuspenak eta aurrekontu-fase guztiak.

b) Azter itzazu batera abenduaren 31ko diru-sarreraren eta gastuen txosten ekonomikoak.

c) Erregistratu behar dira diru-sarreraren aurrekontuan gorago adierazitako mugimendu guztiak? Arrazoitu erantzuna.

5. atala

a) Kalkula ezazu **aurrekontu-emaiza** behean adierazitako eskemari jarraituz.

**AURREKONTUAREN EMAITZA**

Kontzeptuak	AITORTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK	AITORTUTAKO OBLIGAZIO GARBIAK	DOIKETAK	AURREKONTUAREN EMAITZA
a) Eragiketa arruntak				
b) Beste eragiketa ez-finantzario batzuk				
<b>1. Eragiketa ez-finantzarioak guztira (a + b)</b>				
2. Finantza-aktiboak				
3. Finantza-pasiboak				
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU-EMAITZA</b>				

DOIKETAK:

- 4. Altxortegiko gerakinarekin finantzatutako kreditu gastatuak
- 4. Ekitaldiko finantza-desbiderapen negatiboak
- 5. Ekitaldiko finantza-desbiderapen positiboak


**AURREKONTU-EMAITZA DOITUA**

6. atala

a)UPV/EHUn aplikatzekoa den araudiaren arabera, txertatu behar dira kredituen gerakinak? Arrazoitu erantzuna.

b) 2012ko abenduaren 31n kontu korranteetako saldoa 5.405.000 euro baldin bada, zenbat da Altxortegiko Gerakina?

## **2. KASU PRAKTIKOA**





## **HIPOTESI PRAKTIKOA**

2013. urtean, UCLAK 2012. urteko balantzea (I. ERANSKINA) eta 2013. urteko diru-sarrera eta gastuen aurrekontua (II. ERANSKINA) onartu zituen.

1. 6. kapituluan, inbertsioetan, 2013. eta 2014. urteetan egingo den inbertsio-proiektu bat (1. proiektua) ageri da; 2013. urtean, 10.000 € esleitu zaizkio, eta 2014an, 5.000 €. Proiektuak Diputazioaren finantzazioa du, eta adostu da obraren hasieran % 30 jasotzea eta gainerakoa amaitutakoan.
2. Era berean, 6. kapituluan hau ere, bigarren proiektu bat dago (2. proiektua), 2012. urtean hasia eta 2014. urtean amaitzea aurreikusia, zuzkidura hauek dituen:

2012: 30.000 €    2013: 50.000 €    2014: 20.000 €                      Guztira: 100.000 €

2. proiektu hori % 50ean finantzatuta dago (50.000 €) Diputazioaren ekarpenekin; proiektuaren hasieran, 25.000 € jaso ziren, eta adostu zen gainerakoa proiektua amaitutakoan jasotzea.

Aurreko urtean 25.000 €-ko eskubideak aitortu ziren, eta 30.000 €-ko obligazioak; gainera, 2013. eta 2014. urteetarako kopuruak baimendu eta konprometitu ziren.

### **Oharrak:**

- Ez da eramaten 430 (“Aitortutako eskubideengatiko zordunak, uneko ekitaldian”) eta 431 (“Aitortutako eskubideengatiko zordunak, itxitaiko ekitaldietan”) kontuetako azpikonturik.
- Kasu honetan, ez da egingo epe luzearen eta epe laburraren arteko birsailkapenik.
- Eskubideak aitortua egon behar du beti, kobratuko bada.

2013ko ekitaldian, eragiketa hauek egin dira:

1. Kontabilitatea eta aurrekontua irekitzea (bietan, zenbateko globalak erabil daitezke)
2. AD dokumentuak jaulkitzen dira, aurrekontuaren 1. kapituluan (pertsoneko-gastuak) agertzen den zenbatekoarekin.
3. 2. proiektuaren ekitaldi honi dagokion ADA jaulkitzen eta kontabilizatzen da.
4. Administrazio-tasen eskubideak aitortu dira; hauek dira zenbatekoak:
  - Master-tasak: 2.070 €
  - Idazkaritza-tasak: 1.365 €
  - Doktoretza-tasak: 7.500 €
5. Bankuan, 31.000 €-ko sarrerak izan dira, sektore publikoaren parte-hartzea dela eta.
6. Unibertsitateak hiru urtez atzeratu die zorren ordainketa 2012. urteaz geroztik 2.725 €-ko zorra duen enpresa bati eta 2013. urteaz geroztik 2.400 €-ko zorra duen beste bati.
7. Kontzeptu eta zenbateko hauetako diru-sarrerak izan dira bankuan:
  - Idazkaritza-tasak: 1.365 €
  - Doktoretza-tasak: 7.500 €
  - Master-tasak: 1.820 €
  - Zerbitzu-salmenta: 18.000 €

8. Behin 1. proiektua onartu ondoren, 15.000 €-koa, A dokumentua jaulkitzen eta kontabilizatzen da. Gero, 14.800 €-an esleitu da; beraz, dagozkion dokumentuak jaulki eta kontabilizatu behar dira, lehenago kontabilizatutako aurrekontu-faseak doitzeaz gainera.
9. Proiektu hori hasitakoan, bankuan jaso da Diputazioak ekitaldi honetarako ezarria duen zenbatekoa.
10. Proiektu horrengatik, ziurtagiri bakarra jaso da, 9.800 €-koa, eta dagokion "O" dokumentua kontabilizatu da. Eta ordaindu egin da.
11. Kontzeptu eta zenbateko hauetako obligazioak aitortu dira pertsonalaren nominak direla eta:

- 12. art. Funtzionarioak: 165.000 €
- 13. art. Lan-itunpekoak: 53.087 €
- 16. art. Kuota sozialak: 28.815 €

Ordain horiei aplikatu beharreko deskontuak hauek dira:

- PFEZaren konturako atxikipenak: 18.000 €
- Gizarte Segurantzako kuoten atxikipenak: 18.715 €
- Dibortzio-epaiek agindutako atxikipenak: 5.500 €

Deskontu horiek aplikatu egin dira dagozkien kontuetan, eta agindua eman da nominaren ordainketa garbia, 175.872 €, bankura transferitzeko.

12. Hiri-lurzoru batzuen jabe batek aprobetxamenduaren % 10 derrigor eman behar duela eta, lursail bat jaso du Unibertsitateak. Lursail hori 25.000 €-an balioztatu da.
13. Aipatutako lursaila 30.000 €-an saldu da, eta kobratu egin da. Besterentze horren zenbatekoa hurrengo ekitaldian materializatuko da ikasgelategiko obra batean.
14. 2. proiektuaren obra-ziurtagiri bat jaso da, 50.000 €-koa; onetsi eta ordaintzeko agindua eman da.
15. Bankuaren bidez ordaindu zaie epe laburreko hartzekodunei 2012.12.31 egunean zor zaien kopurua.
16. 15.500 €-an erositako eraikin bat laga dio Unibertsitateak erakunde autonomo bati. Amortizazio metatua 1.200 € da.
17. Aurrekontuan, transferentzia korronteei dagokien kantitatea jaso da, eta 100.000 € jaso dira kapital-transferentzietarako. Erregistratu beharreko aurrekontu-aldaketak erregistratu dira.

#### **HAU ESKATZEN DA:**

1. 2012.12.31ko diruzaintzaren gerakina, bai eta egun berean gastu orokorretarako eskura dagoen diruzaintzaren gerakina ere. Amaierako zenbatekoa osatzen duten partidak erlazionatzea eta justifikatzea.
2. Gertatzen diren eragiketak ekitaldi honetarako ondare- eta aurrekontu-kontabilitatearen egunerokoan erregistratzea.
3. 2013ko ekitaldiaren aurrekontu-emaitza. Amaierako zenbatekoa osatzen duten partidak erlazionatzea eta justifikatzea.
4. 2012.12.31ko diruzaintzaren gerakina, bai eta egun berean gastu orokorretarako eskura dagoen diruzaintzaren gerakina ere. Amaierako zenbatekoa osatzen duten partidak erlazionatzea eta justifikatzea.

## I. ERANSKINA

## 2013ko AURREKONTUA

**GASTUEN AURREKONTUA**

<b>1. Kapituluua Pertsonal-gastuak</b>		<b>253.864,00</b>
12. art. Funtzionarioak	170.000,00	
13. art. Lan-itunpekoak	53.787,00	
15. art. Beste batzuk	450,00	
16. art. Kuota, prestazio eta gizarte-gastuak	29.627,00	
<b>2. Kapituluua Funtzionamendu-gastuak</b>		<b>90.134,00</b>
20. art. Alokairuak	1.597,00	
21. art. Makinen konponketak eta mantentze-lanak	4.429,00	
22. art. Bulego-materiala	2.033,00	
23. art. Hornikuntzak	9.973,00	
24. art. Bestelako gastuak	7.586,00	
25. art. Beste enpresa batzuek egindako lanak	23.300,00	
26. art. Zerbitzuarengatiko kalte-ordainak	4.316,00	
27. art. Kanpo-kontratuak	36.900,00	
<b>3. Kapituluua Finantza-gastuak</b>		<b>2.900,00</b>
32. art. EAEko Administrazioarekiko zorren interesak	2.211,00	
33. art. Beste erakundeekiko zorren interesak	689,00	
<b>4. Kapituluua Gastu korronteen transferentziak eta diru-laguntzak</b>		<b>4.634,00</b>
48. art. Familiei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei	4.634,00	
<b>6. Kapituluua Inbertsio errealak</b>		<b>85.359,00</b>
61. art. Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	60.402,00	
62. art. Makinak, tresnak eta instalazioak	601,00	
64. art. Altzari eta lanabesak	2.338,00	
65. art. Informazioa prozesatzeko ekipoak	3.566,00	
66. art. Zientzia-ekipamendua	13.293,00	
67. art. Beste zenbait ibilgetu material	5.159,00	
<b>8. Kapituluua Aktibo finantzarioen handitzea</b>		<b>87,00</b>
82. art. Maileguak ematea	87,00	
<b>9. Kapituluua Finantza-pasiboak</b>		<b>1.184,00</b>
92. art. Administrazio publikoarekiko zorrak amortizatzea	1.184,00	
<b>GUZTIRA</b>		<b>438.162,00</b>

**DIRU-SARREREN AURREKONTUA**

<b>3. Kapituluua Tasak eta beste zenbait diru-sarrera</b>		<b>57.656,00</b>
31. art. Zerbitzu-salmenta	19.100,00	
32. art. Tasa akademiko eta administratiboak	38.556,00	
<b>4. Kapituluua Transferentzia korrontek</b>		<b>309.850,00</b>
45. art. Euskal sektore publikotikoak	309.850,00	
<b>5. Kapituluua Ondarezko diru-sarrerak</b>		<b>1.650,00</b>
52. art. Gordailuen interesak	1.200,00	
55. art. Emakida eta aprobetxamendu bereziak	450,00	
<b>7. Kapituluua Kapital-transferentziak</b>		<b>44.800,00</b>
75. art. Euskal sektore publikotikoak	44.800,00	
<b>9. Kapituluua Finantza-pasiboak</b>		<b>24.206,00</b>
93. art. Beste erakundeekiko zorrak	24.206,00	
<b>GUZTIRA</b>		<b>438.162,00</b>



## II. ERANSKINA

## 2012.12.31ko BALANTZEA

## AKTIBOA

## A) Ibilgetua

<b>1. Ibilgetu immateriala</b>		<b>8,00</b>
<b>2. Ibilgetu materiala</b>		<b>200.273,00</b>
Lurrak eta ondasun naturalak	120.850,00	
Eraikinak	78.521,00	
Altzariak	30.442,00	
Amortizazioak	-29.540,00	
<b>3. Ibilgetu finantzariora</b>		<b>1.941,00</b>

## B) Aktibo zirkulatzaila

<b>1. Zordunak</b>		<b>80.935,00</b>
Aitortutako eskubideengatiko zordunak	78.784,00	
Askotariko zordunak	880,00	
Langileei eginiko aurrerakinak	425,00	
Administrazio publikoak	846,00	
<b>2. Diruzaintza</b>		<b>17.557,00</b>
Kutxa	7,00	
Banku eta kreditu-erakundeak	17.550,00	

**GUZTIRA** **300.714,00**

## PASIBOA

## A) Funts propioak

<b>1. Ondarea</b>		<b>243.462,00</b>
Ondarea	202.509,00	
Aurreko ekitaldietako emaitzak	28.306,00	
Uneko ekitaldiko emaitzak	12.647,00	
<b>2. Arrisku eta gastuetarako hornidurak</b>		<b>2.981,00</b>

## B) Epe luzeko hartzekodunak

<b>1. Epe luzeko hartzekodunak</b>		<b>15.782,00</b>
------------------------------------	--	------------------

## D) Epe laburreko hartzekodunak

<b>1. Kreditu-erakundeekiko zorrak</b>		<b>1.101,00</b>
<b>2. Beste zor batzuk</b>		<b>37.388,00</b>
Aitortutako obligazioengatiko hartzekodunak	28.314,00	
Askotariko hartzekodunak	900,00	
Administrazio publikoak	7.899,00	
Beste zor batzuk	275,00	

**GUZTIRA** **300.714,00**

### **3. KASU PRAKTIKOA**



## 1. HIPOTESIA

UPV/EHUren auditorian, diruzaintza-arloa esleitu dizute. Unibertsitateak, auditoriari dagokion aldian, bi finantza-erakunderekin egin ditu eragiketak, eta eragiketa horiei dagozkien kontuen datuak eman ditu (I. eranskinean daude).

Aipatutako kontu horien laburpenak ere eman dizkigu (II. eranskinean daude).

Datu horiek eman dizkigun pertsona diruzaintzako kontabilitate-erregistroak egiten dituen da; berak egiaztatzen ditu bi finantza-erakundeek bidalitako laburpenetako apunteak, eta bera da, halaber, sinadura solidario bidez kontuetako fondoak erabiltzeko baimena duten 2 pertsonetako bat.

Hau eskatzen da:

1. A eta B bankuetako kontuen berdinkatzea egitea 2012-12-31ko datan, eta adieraztea zure ustez zer egiaztapen egitea komeni den berdinkatze-partidei dagokienez eta zein kasutan komeniko litzatekeen doiketak egitea.
2. Akatsak eta egoki iruditzen zaizkizun gomendioak.
3. Diruzaintza-arloari dagokionez egoki iruditzen zaizkizun beste proba batzuk deskribatzea.

## 2. HIPOTESIA

XXX enpresaren urteko kontuen auditoria egiten ari gara. Enpresak bulego-materiala saltzen du. Lanean hasita, egintza hauek aurkitu ditugu:

1. Bezeroak otsailean egin digu kontratua, eta, horregatik, ezin izan dugu inventario fisikoan parte hartu ekitaldiaren amaierako izakinak egiaztatzeko.
2. Azken lau urteetako zerga-ikuskapen bat hasita dago. Zerga-ikuskatzaileek uste dute ikuskatze horren emaitzak ez duela efektu nabarmenik izango sozietatearen kontuetan. Auditore garen aldetik, uste dugu kalkulaturako kontingentziak adierazgarriak izan daitezkeela, zeren eta, dirudienez, ez baita kontuan hartu hainbanaketaren erregela jasandako BEZa kentzeko orduan, baina ez gara gauza kalkulatzeko.
3. Bezero nazionaleri dagokienez, 4 bezero besterik ez du; zirkularrak bidali zaizkie, egiaztatu dezaten, eta galderen % 100 adostasunekoak izan dira.
4. Atzerriko bezeroei dagokienez, 5 dira eta 2k bakarrik egiaztatu digute; bion artean saldoaren % 60 osatzen dute, eta biok saldoarekiko adostasuna azaldu dute.
5. Gainera, beste zordun batzuen partidan, 100.000 €-ko saldo bat zegoen, auditaturako ekitaldiko transakzio bati dagokiona. Ixte-dataren ondoren, baina txostena jaulki baino lehen, zordunak hartzekodunen konkurtsoa eskatu du sute batek haren instalazioak —ez zeuden aseguratutako— suntsitu baititu. Sozietateak ez du zenbatekorik sartu narriadura gisa, haren ustez auditatu beharreko ekitaldiko abenduaren 31n kopuruak zuzen baitzeuden.
6. Hartzekodunen kontukoei zirkularra bidali zitzaion, baina ez da erantzunik lortu.
7. Sozietateak 100.000 € aktibaturik ditu kreditu fiskal gisa, azken 3 ekitaldietako zerga-oinarri negatiboetatik eratorria. Baina, ez sozietateak, ez guk, ez dugu segurtasun aski funtsaturik kreditu fiskal hori etorkizunean berreskuratuko dela uste izateko.



8. Garrantzitsutzat jotzen diren ebidentzia batzuk lortzeko, aditu independente ez-auditore bat behar da, baina enpresak ez du onartu kontratatzea, auditorian kostu gehigarriak ez izatearren.
9. Txostenean ez da agertzen finantzazio-laukia, ezta Administrazio Kontseiluko kideen ordainsariak ere.
10. Enpresak defizit garrantzitsua du bere ibilgetuaren aseguru-estalduran.

Aurkitzen diren diferentzia guztiak garrantzitsuak direla emanik, adieraz ezazu nola jokatu beharko litzatekeen kasu bakoitzean ebidentzia onargarri bat lortzeko arloetako bakoitzean, eta zer ondorio izango lukeen auditoria-txostenean ezin izango balitz ebidentziarik lortu.

Adieraz ezazu kasu bakoitzerako berariaz zer iritzi mota jaulkiko genukeen txostenean auditore gisa.

## I. ERANSKINA

### KONTABILITATE-KONTUEN XEHETASUNA

<u>Eragiketa-data</u>	<u>A kontua</u> <u>Kontzeptua</u>	<u>Zorra</u>	<u>Hartzekoa</u>	<u>Saldoa</u>
30/11/2012	Hasierako saldoa			10.900,00
01/12/2012	T/147 ordainketa Bidaia-gastuak		500,25	
05/12/2012	Enpresa baten fakturaren sarrera	2.500,00		
09/12/2012	Gai suntsikorren fakturaren ordainketa		500,00	
09/12/2012	Ikasleen tasen diru-sarrera	500,00		
12/12/2012	Eusko Jaurlaritzaren transferentziaren diru-sarrera	1.500,00		
20/12/2012	T/148 ordainketa Bidaia-gastuak		500,00	
23/12/2012	Abenduko nominaren ordainketa		10.000,00	
25/12/2012	Gizarte Segurantzaren azaroko ordainketa		2.800,00	
31/12/2012	Argiaren ordainagiria		400,00	
31/12/2012	B konturako intsuldaketa		400,00	299,75

<u>Eragiketa-data</u>	<u>B kontua</u> <u>Kontzeptua</u>	<u>Zorra</u>	<u>Hartzekoa</u>	<u>Saldoa</u>
30/11/2012	Hasierako saldoa			11.000,00
01/12/2012	T/146 ordainketa Bidaia-gastuak		500,00	
10/12/2012	Alokairuaren fakturaren ordainketa		10.000,00	
20/12/2012	T/149 ordainketa Bidaia-gastuak		500,00	
23/12/2012	Faktura baten diru-sarrera	400,00		
31/12/2012	A kontutiko intsuldaketa	400,00		800,00



## II. ERANSKINA

### BANKU-LABURPENEN XEHETASUNA

<u>Eragiketa-dat:</u>	<u>Balio-data</u>	<u>A kontua</u> <u>Kontzeptua</u>	<u>Zorra</u>	<u>Hartzekoa</u>	<u>Saldoa</u>
		Saldoa 2012-11-30ean			12.000,00
01/12/2012	01/12/2012	Zure transferentzia-agindua	300,00		11.700,00
01/12/2012	01/12/2012	T/147 ordainketa Bidaia-gastuak	500,25		11.199,75
01/12/2012	30/11/2012	Zure transferentzia-agindua	800,00		10.399,75
05/12/2012	05/12/2012	Enpresa baten fakturaren sarrera		2.500,00	12.899,75
09/12/2012	09/12/2012	Gai suntsikorren fakturaren ordainketa	500,00		12.399,75
09/12/2012	09/12/2012	Askotariko diru-sarrerak		780,20	13.179,95
09/12/2012	09/12/2012	Ikasleen tasen diru-sarrera		5.000,00	18.179,95
12/12/2012	12/12/2012	Eusko Jaurlaritzaren transferentziaren diru-sarrera		1.500,00	19.679,95
23/12/2012	23/12/2012	T/148 ordainketa Bidaia-gastuak	500,00		19.179,95
23/12/2012	23/12/2012	Abenduko nominaren ordainketa	9.800,00		9.379,95
25/12/2012	23/12/2012	Gizarte Segurantzaren azaroko ordainketa	2.800,00		6.579,95
31/12/2012	31/12/2012	Uraren fakturaren ordainketa	600,00		5.979,95
31/12/2012	31/12/2012	Aldeko interesak		79,00	6.058,95
31/12/2012	31/12/2012	B konturako intsuldaketa	400,00		5.658,95
01/01/2013	31/12/2012	Argiaren ordainagiria	400,00		5.258,95
02/01/2013	23/12/2012	Abenduko nominaren ordainketa	200,00		5.058,95
08/01/2013	09/12/2012	Akats batek eragindakoko apunte bat ezabatzea	780,20		4.278,75
31/01/2013	31/01/2013	Gizarte Segurantzaren Abenduko ordainketa	2.800,00		1.478,75

<u>Eragiketa-dat:</u>	<u>Balio-data</u>	<u>B kontua</u> <u>Kontzeptua</u>	<u>Zorra</u>	<u>Hartzekoa</u>	<u>Saldoa</u>
		Saldoa 2012-11-30ean			11.000,00
01/12/2012	01/12/2012	T/146 ordainketa Bidaia-gastuak	500,00		10.500,00
10/12/2012	10/12/2012	Alokairuaren fakturaren ordainketa	10.000,00		500,00
23/12/2012	24/12/2012	Faktura baten diru-sarrera		400,00	900,00
31/12/2012	31/12/2012	Mailegu-interesak	800,00		100,00
31/12/2012	31/12/2012	Aldeko interesak		94,80	194,80
01/01/2013	31/12/2012	A kontutiko intsuldaketa		400,00	594,80
01/01/2013	01/01/2013	Askotariko diru-sarrerak		100.000,00	100.594,80
15/01/2013	15/01/2013	T/149 ordainketa Bidaia-gastuak	500,00		100.094,80

## A Eredua-Modelo A

Galdera / Pregunta	Erantzuna / Respuesta
1	D
2	C
3	A
4	A
5	C
6	B
7	C
8	C
9	B
10	A
11	C
12	A
13	C
14	C
15	C
16	B
17	B
18	D
19	A
20	D
21	B
22	A
23	C
24	B
25	B
26	C
27	B
28	B
29	B
30	A

Galdera / Pregunta	Erantzuna / Respuesta
31	C
32	B
33	C
34	A
35	B
36	D
37	A
38	C
39	D
40	C
41	C
42	A
43	B
44	D
45	A
46	A
47	C
48	D
49	B
50	B
51	D
52	B
53	A
54	C
55	B
56	A
57	C
58	D
59	C
60	B